



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara bidea egiten

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Gomez de Segura Irigoyen, Nerea.

ZUZENDARIA: Comino Gonzalez, Priscila.

2021

Laburpena

Gradu Amaierako Lan honen bidez, hurrek Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara igarotzean bizi duten errealitatera hurbildu nahi dugu, eta trantsizio honi dagokion hezkuntza errealitatea ezagutu.

Horretarako, ikerketa lan bat eraman dugu aurrera, non, bi etapetako 55 irakasleren eta 153 familiaren artean dagoen koordinazioa, trantsizio horri aurre egiteko Haur Hezkuntzako azken ikasturtetik haiekin egiten den prestakuntza, familiek ikastetxearekin duten harremana eta aldaketa bizi duten hurrek Lehen Hezkuntzako lehen mailan izan ditzaketen jokabide eta zailtasunak aztertu ditugun.

Bertan ikusiko dugu zein garrantzitsua den prozesu hau eskoletan erregulatzea, eta irakasle eta gurasoen arteko elkarlana bultzatzea, trantsizio honetan ikasleei bidea errazteko.

Hitz-gakoak: trantsizioa, koordinazioa, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza.

Resumen

Mediante este Trabajo de Fin de Grado, queremos acercarnos a la realidad que viven los estudiantes en la transición de Educación Infantil a Educación Primaria, y conocer la realidad educativa que corresponde a esta transición.

Para ello, hemos llevado a cabo un trabajo de investigación en el que hemos analizado la coordinación entre el profesorado y las familias de ambas etapas, la formación que se realiza con ellas desde el último curso de Educación Infantil para hacer frente a esta transición, la relación de las familias con el centro y las conductas y dificultades que pueden tener los niños y niñas que viven el cambio en el primer curso de Educación Primaria.

Aquí veremos la importancia de regular este proceso en las escuelas y de impulsar la colaboración entre el profesorado y los padres y madres para facilitar el camino al alumnado en esta transición.

Palabras clave: transición, coordinación, Educación Infantil, Educación Primaria.

Abstract

Through this Final Degree Project, we want to get closer to the reality experienced by students in the transition from Infant to Primary Education, and to know the educational reality that corresponds to this transition.

To do this, we have carried out a research project in which we have analysed the coordination between teachers and families in both stages, the training that is carried out with them from the last year of Infant Education to deal with this transition, the relationship between families and the centre and the behaviours and difficulties that children who experience the change in the first year of Primary Education may have.

Here we will see the importance of regulating this process in schools and promoting collaboration between teachers and parents in order to facilitate the transition for students.

Key-words: transition, coordination, Early Childhood Education, Primary Education

AURKIBIDEA:

1.SARRERA.....	1
2.JUSTIFIKAZIOA.....	2
3.HELBURUAK.....	3
4. MARKO TEORIKOA.....	3
3.1. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa.....	3
3.2. Etapen arteko trantsizioa legeriaren arabera.....	4
3.3. Trantsizioaren parte hartzaileak:.....	5
3.3.1. Haurra.....	5
3.3.2. Eskola.....	10
3.3.3. Familia.....	13
3.4. HHTik LHra pasatzen diren haurren ohiko jarrera aldaketa.....	14
3.5. Prozesua errazteko pausuak.....	16
5. METODOLOGIA.....	17
4.1. Parte hartzaileak.....	17
4.2. Ebaluazio instrumentua.....	20
4.3. Prozedura.....	21
4.4. Emaitzak.....	21
4.4.1. Irakasleen koordinazio eta prestakuntza.....	22
4.4.2. Familien pertzepzioa.....	27
4.4.3. Haurren zailtasunak eta jokabideak.....	30
4.5. Emaitzen eztabaida.....	32
6. ONDORIOAK.....	34
7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	36
8. ERREFERENTZIAK.....	38
ERANSKINAK.....	40

1. SARRERA

Azken urteotan hurrei gertatzen zaiena ezagutzeko interesa areagotu egin da, batez ere beren bizitzan aldaketa garrantzitsuak gertatzen diren uneetan. Gainera, jakin badakigu aldaketa horiek zailak izan daitezkeela horietako batzuentzat, egiten diren moduagatik edo beste faktore batzuentzat, eta horrek joera handiagoa ematen digu horri buruz ikertzeko eta horren inguruan hobetu dezakegula ikusteko. Hori dela eta, badakigu hezkuntza-etapen arteko trantsizioak garapen soziopertsonal eta hezitzaile mailan bilakaera oso garrantzitsua eragiten duela ikaslearengan, eta badakigu ez diela haur guztiei berdin eragiten; beraz, ezin dugu oharkabean pasatzen utzi aldaketa hori gertatzen den unea.

Lan honetan, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara igarotzeari buruz sortzen zaizkigun hainbat galderari erantzuten saiatuko gara, eta horretarako, lehenik eta behin, azken urteotan gai honi buruz egin diren liburu, aldizkari, artikulu eta azterlan ezberdinen berrikuspen bibliografiko sakona egin eta gero, gaiaren inguruko eduki teorikoak batu ditugu, ikerketarako oinarri garrantzitsua dena.

Lanaren bigarren zatian, ikerketa bat egin dugu inkesten bidez, eta prozesu horretan haurren inguruan dauden hiru eragile nagusienei galdetu diegu: Haur Hezkuntzako irakasleei, Lehen Hezkuntzako irakasleei eta familiei. Galdetegi horien bidez, honako hauek aztertu nahi izan ditugu nagusiki: bi etapetako maisuen artean dagoen koordinazioa, irakasleek familiekin duten harremana, trantsizioa nola egiten den, Lehen Hezkuntzako 1. mailako hurrek zer jokabide erakusten dituzten eta familiek prozesua nola bizitzen duten. Puntu horiek lehen atalean jorratu arren, gure oinarri teorikoaren egileek adierazten dutena gure azterketaren emaitzekin bat datorren egiaztatu nahi izan dugu.

Amaitzeko, hirugarren atalean, inkesten eta erantzun orokorren bidez ateratako ondorioak azalduko ditugu.

2. JUSTIFIKAZIOA

Nire eta ingurukoen bizipenek askotan erakutsi didate Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioan egiten den jauzia oso handia dela, eta nolabait, ikasleak irakaskuntza informal batetik formal batera igarotzen diren, inolako zubirik gabe. Aurrera eramandako azken praktketan lehen mailako ikasleekin aritzeko aukera izan dut, eta errealitate hori berriz ere ikusteak gai honen inguruan gehiago jakin nahi izatera eraman nau.

Praktika hauetan ikusi ahal izan dudanez, 5 urteko haurrak, Lehen Hezkuntzara igarotzearekin hain ilusionatuta daudenak, etapa horretara iristean faltan botatzen dute haientzat erreferente izan duten irakaslea, gelan jolasteko unea eta asanbladaren unea, non, libreki adieraz zitezkeen eta euren bizipenen inguruan hitz egin zezaketen gainerakoekin. Etxerako lanak eramaten hasten dira, eta aisialdiaren zati bat ikasle bezala duten betebeharrak betetzera zuzendu behar dute. Nahastuta sentitzen dira erabilitako metodologia Haur Hezkuntzan erabiltzen zuten metodologiatik oso urrun dagoelako, denbora luzez eserita egon behar dutelako eta jolastokian hamaiketako hartu behar dutelako, jolasteko denbora kentzen diena.

Horrez gain, bi ziklo horietako irakasleen artean dagoen koordinazio eskasa egiaztatu ahal izan nuen; Lehen Hezkuntza hastean, aurreko ikasturtean erabiltzen den idazketa-irakurketa irakaskuntza metodoaren aldaketa, eta honek dakartzan arazoak, eta baita irakasle eta gurasoen arteko kontaktu falta ere.

Gainera, aurreko ikasturte amaieran Covid-19aren birusa dela eta, guztiontzat berria izan den pandemia eta konfinamendu bat bizi izan dugu, eta lan honetan protagonista den trantsizioa modu berri batean bizi izan da ikasle, irakasle zein gurasoen partetik. Horregatik, lan honetan Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara igarotzeari buruz sortzen zaizkigun hainbat galderari erantzuten saiatuko gara.

3. HELBURUAK

Gure lanaren abiapuntua ikastetxeetan Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako etapak nola igarotzen diren sakontzea da. Helburu orokor horretatik abiatuta, hainbat espezifikokoago sortzen zaizkigu:

- Ikasturtean zehar bi etapetako irakasleek zein nolako koordinazio-mota duten adierazi.
- Bi etapetako irakasleek alderdi berari buruz dituzten iritzi desberdinak alderatu.
- Familiak prozesu horri buruz duten iritzia deskribatu.
- Etapa batetik bestera igarotzeak haurrengan nola eragin dezakeen identifikatu.

Helburu horien ebazpena azterlan baten bidez egingo da. Azterlan horretan, hainbat inkesta egingo zaie Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleei eta haien seme-alabak gaur egun Lehen Hezkuntzako 1. mailan eta 2.mailan dituzten gurasoei. Azken hauen parte hartzea Covid-19 gabeko trantsizioaren inguruko informazioa lortzeko egin da. Horretarako, lehenik eta behin, horri buruz dagoen esparru teorikoa aztertuko dugu, eta, informazio horren arabera, gure helburuak lortzeko erantzuna emango diguten inkestak diseinatu ditugu.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa

Gaian sartzen hasteko, lehenik eta behin, garrantzitsua da trantsizioa zer den argi uztea, lan honetan aztertuko den kontzeptu nagusia baita, eta zehatzago, hezkuntza-etapen arteko trantsizioaren kontzeptura hurbilduko gara, hainbat autorek diotena kontuan izanik.

Hezkuntza-trantsizioaren kontzeptuak hurrek hezkuntzaren fase batetik bestera egiten duten aldaketari egiten dio erreferentzia, non, gizarte-harremanen, irakaskuntza-estiloaren, ingurunearen, espazioaren, denboraren, ikaskuntza-testuinguruen eta ikaskuntzaren beraren ikuspegitik dauden erronken aurrean jartzen baitira, prozesu hori intentsitate handiko eta gero eta aginte handiagoko prozesu bihurtuz (Fabian eta Dunlop, 2006).

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara igarotzean, haurrak ingurune berri batera egokitu behar dira, askotan Haur Hezkuntzaren esparruan ezagutu dutenaren oso desberdina, eta irakasle berri batekin eta ikaskide berriekin aurkitzen dira. Izan ere, derrigorrezko eskolatzearen hasiera, haurrak bere haurtzaroko lehen urteetan aurre egin behar dien erronka handienetako bat bezala deskribatu da, bere ikaskuntzari eragin diezaiokeen trantsizio kritiko bezala (Argos, Ezquerria eta Castro, 2011).

Bestalde, Gairínek (2005) esaten duenez, hezkuntza-etapen arteko trantsizioa hezkuntza aukera edo arazo bat izan daiteke. Berarentzat, trantsizio-prozesuak problematikoak dira beti, honek prestakuntzaren testuingurua, araudia eta orientazioa aldatzea bait dakar, eta horiek, batez ere, ikaslearen prozesu emozional eta sozialetan eragiten dute.

3.2. Etapen arteko trantsizioa legeriaren arabera

Etapen baten eta besteen arteko trantsizio prozesu hori nola gauzatu behar den jakiteko, lehenik eta behin, egungo etapen arautzen dituen hezkuntza-araudia zein den ezagutu behar dugu. Alde horretatik, ezin dugu ahaztu autonomia erkidego bakoitzak eskumena duela hezkuntza arloan, eta horretatik, garrantzitsua da EAEko hezkuntza-sistema nola antolatzen den ezagutzea, trantsizioaren inguruan zer dioen jakiteko.

Heziberri 2020ko hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoan, ebaluazioaren atalean aurki daiteke Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapei bateratuta egiten zaien lehen erreferentzia:

“Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, nahitaezkoa da inklusioaren printzipioari amore eman eta garapen pertsonalarekin nahiz haur guztien

arrakasta lortzearekin lotutako premien mendean jartzea ebaluazioa eta promozioa. Ebaluazioak hezigarria izan behar du, indibidualizatua, etengabekoa, ikasleen premiak eta aukerak detektatzera bideratua, globala, arlo guztiak uztartuko dituen, eta etxekoei txosten indibidualizatuak bidaliko dizkiena. Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara eta azken horretatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igarotzea, horra hor promozio-neurri arrunta, txosten indibidualizatuarekin batera; horrek aski behar luke ikasleek, prestakuntzari dagokionez, aurreko etapetan izandako gabeziak hurrengo etapetan gainditu eta konpontzeko. Irakasleek ahalik gutxien esku hartu behar lukete ikastaldean; maisu-maistra jeneralisten lana sustatu behar da, eta ikasleak ohiko ikastorduetan ikastaldetik ez aldentzea bultzatu.” (40.or)

Bestalde, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako curriculum Dekretuak begiratzean, haien arteko igarobidea zehazten duen ezer gutxi aurkitu daiteke. Haur Hezkuntzako curriculumak zehazten duen abenduaren 22ko 237/2015 DEKRETUAK honako hau esaten du:

“Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako igarobidea errazteko, arreta berezia jarriko zaio etapa bien arteko koordinazioari, bien arteko desberdintasun pedagogikoak eta antolaketakoak eta desberdintasun horiek ikaslearen aurrerabide akademikoan eragin ditzaketan desorekak gainditzeko.”

“Haur Hezkuntza amaitzean, Lehen Hezkuntzara igarotzeko behar diren konpetentziak lortu behar dituzte ikasle guztiek.”

Azkenik, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta EAEan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 DEKRETUAN honako hau aurki dezakegu:

“Oinarrizko Hezkuntzak gizakien ahalmenak osorik garatu behar ditu – Haur Hezkuntzan hasita–, eta bizitza osoan zehar behar diren oinarrizko konpetentziak eskuratzea, errealizazio eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko.”

Horrela, egiaztatu dugu Euskal Autonomia Erkidegoan bi hezkuntza etapa horien arteko igarobidea oso zeharka aipatzen dela, eta modu honetan, ez du

argi adierazten nola gauzatu behar den koordinazio prozesu hori, antolamendua erabat ikastetxearen esku utziz.

3.3. Trantsizioaren parte hartzaileak:

3.3.1. Haurra

Behar bezala lan egin ahal izateko eta aldaketa eta egokitzapen prozesua ikasleekin nola gauzatzen ari den ulertu ahal izateko, adin honetako haurrak zein eboluzio unetan dauden jakin behar da. Hau esanda, psikologia ebolutiboak irakasleoi haurra ulertzeko informazioa ematen digu, eta haren gaitasunak eta mugak ahal den neurrian ezagutzeko ahalmena. Hala ere, pertsona bakoitzak bere ezaugarriak dituela ulertu behar da, bere heltze-erritmo eta garapen propioarekin. Horregatik, ezaugarri horiek ezagutzeak aukera ematen digu gure ikasleak hobeto ezagutzera hurbiltzeko eta, horrela, beren potentzial psikomotorra, afektiboa, kognitiboa eta soziala garatu ahal izateko.

Izan ere, irakasleak haurren ezaugarri psikoebolutiboak ezagutzea ezinbestekoa da hezkuntzan modu eraginkorrean esku hartzeko, bai eta etapako irakaskuntza proiektu eta programazioen esparruan akordioak lortu ahal izateko ere. Gainera, hezkuntzaren helburua ikaslearen garapena sustatzea da eta, horretarako, beharrezkoa da haurren garapena nola gertatzen den jakitea, hura sustatzeko eta egon daitezkeen alterazioak edo/eta zailtasunak sahiesteko (Tamayo, 2014).

Haur Hezkuntzako azken ikasturtean dauden ikasleak, eta beraz, trantsizioa biziko dutenak, 5-6 urteko haurrak dira. Hori dela eta, horiek nola bizi diren eta haietara nola egokitu behar den zehazteko funtsezkoa da haur horien ezaugarriak ezagutzea.

Ezaugarri komunikatiboak

Adin honetako berezko komunikazio ezaugarriari dagokienez, hizkuntza norberaren komunikatzeko jokabidea, ezagutzeko eta arautzeko funtsezko tresna gisa nabarmentzen da. Horregatik, ahozko hizkuntzaren jabeakuntza eta

erabilera lehentasunezko helburuak dira Haur eta Lehen Hezkuntzan, hizkuntza garatzeko funtsezko etapak baitira.

Etaparen honetan, esanahien errepertorioan hazkunde handia dago, horrek kontzeptuen eta eremu semantikoaren arteko barne-harremanak ezartzeko aukera ematen dielarik. Hitzen eta kategoria taxonomikoen arteko sinonimia eta antonimia erlazioak ere agertzen hasten dira (Martín eta Navarro, 2009).

Komunikazio-gaitasunen ezaugarri orokor gisa esan dezakegu erantzunak gehiago egokitzen zaizkiola galdetutakoari, galderak urriagoak eta serioagoak direla eta mendeko eta baldintzazko perpausak erabiltzen dituztela. Gainera, hitzen esanahiaz interesatzen dira eta elkarrizketak garrantzi handia hartzen du (Galán eta García, 2008).

Modu honetan, Ikastetxeak ikaslearen ulermen eta adierazpen gaitasunak estimulatzeko testuinguru bat sortu behar du, ikasleak bere hizkuntza-erabilerak solaskideei eta komunikazio-egoerei egokitzen ikas dezan.

Ezaugarri kognitiboak

Alderdi kognitiboari dagokionez, nabarmentzekoa da 5-6 urteko haurrak eragiketa aurreko estadioan daudela, Piageten teoriaren garapen etapetan oinarrituta. Aldi horren barruan, pentsamendu intuitiboaren etapan daude, 4-7 urte bitartean (Lizaso, 2013).

Etaparen honetan, haurrek gaitasun handiagoa dute objektuak euren ezaugarri pertzeptualen arabera sailkatzeko, hala nola; tamaina, forma eta kolorearen arabera. Haurraren pentsamendua intuitiboa dela esaten da objektuen eta gertakarien ulermena, neurri handi batean, oraindik bere pertzeptzio-ezaugarri nagusienean oinarritzen delako; hau da, gauzak diruditen bezala direla, pentsamendu logiko edo arrazionalerako prozesuak alde batera utziz (Shaffer eta Kipp, 2000).

Gainera, umeak konturatzen dira gertaerek badituztela kausak, aurretik emandako informazioa bildu eta gero (Lizaso, 2013).

Ezaugarri psikomotorrak

Garapen psikomotorrean, haurrak bere mugimenduak kontrolatzen, koordinatzen, finkatzen eta fintzen ditu. Etapa honetan irakurketa-idazketa prozesua bete-betean ikasten ari da. Prozesu horretan, albokotasuna eta alderdi sinbolikoagoak (hala nola, gorputz-eskema eta espazio-denboraren egituraketa) aintzat hartzearen garrantzia nabarmentzen da. Lateralitatea 3 eta 6 urte bitartean definitzen da, Lehen Hezkuntzan lortzen den begi-eskuko koordinazioarekin batera. Biak dira irakurketa eta idazketa ikasteko funtsezko aurrebaldintzak (Tamayo, 2014).

5 urterekin, besoak mugitzen dituzte korrika egiten dutenean, oin eta eskuen arteko koordinazioa eginez, eta batzuek bizikletan ibiltzen ikasteko moduko oreka dute. Horrez gain, amantala lotu, diseinu sinpleak kopiatu edo lerro zuzenean mozteko gai ere badira (Shaffer eta Kipp, 2000).

Ezaugarri honekin amaitzeko, azpimarratuko dugu 5 urteko adinean motrizitate lodia menderatzen eta fina garatzen dutela; lau norabideetan orientatzeko gai dira, salto egin dezakete zailtasunik gabe, hanka puntetan korrika egin, arkatza segurtasunez eta zehaztasunez maniatu eta giza irudi oso eta ezagugarria marraztu (Galán eta García, 2008).

Ezaugarri sozioafektiboak

Azkenik, garapen sozioafektiboari dagokionez, prozesu konplexuagotzat jotzen da, sozializazioak alderdi mentalak, afektiboak eta jokabidezkoak barne hartzen baititu.

Berdinen arteko harremanetan ez dute hainbeste finkatzen helduaren arreta lortzeko helburua. Aitzitik, harremanak gero eta iraunkorragoak dira, eta 6 urterekin hasten da haurra beste haur batzuekin enpatia izaten (Tamayo, 2014).

Etapa horretan, halaber, haurrak bigarren mailako emozioak ezagutzen hasten dira, gizakiaren gizarte- eta talde-izaerarekin zerikusi handia dutenak. Horietako batzuk harrotasuna, lotsa, errua edo nostalgia dira. Emozio horiek gizartearen arauak edo balioak eskuratzearekin lotuta daude.

Haurtzaroan, hiru eta sei urteetan, garapen emozionalak dakartzan aldaketa garrantzitsuenetan dago hizkuntza emozionala gehiago erabiltzea eta emozioak ulertzea. Haurrek beren emozioak garatzen dituzte eta trebeagoak dira haietaz hitz egiteko orduan. (Martín eta Navarro, 2009)

Oro har, etapa honetan nabarmentzen da ardura txikiak hartzen hasiak direla, babesleagoak direla txikienekin, nahiz eta egozentrikoak izaten jarraitu geroz eta neurri txikiago batean, eta arauak dituzten jolasetan jolasteko gaitasuna ere garatzen dutela. Orokorrean, bere bizitza emozionala gero eta egonkorragoa da (Galán eta García, 2008).

Laburpen gisa, adin horretako haurren eboluzio ezaugarriak taula honetan jasotzen dira.

5-6 urteko umeak	
Ezaugarri komunikatiboak	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza da komunikatzeko tresna nagusia. - Antonimo eta sinonimoen arteko erlazioak ageri dira. - Momentura egokituago dauden galderak eta erantzunak egiten dituzte. - Elkarrizketak garrantzia handia hartzen du.
Ezaugarri kognitiboak	<ul style="list-style-type: none"> - Objektuak sailkatu ditzakete tamaina, forma eta kolorearen arabera. - Objektuen ezaugarri nagusienetan zentratzen dira. - Errealistagoa da. Gogamenaren teoria. Kontzienteagoak dira buruko aktibitateaz eta funtzionamenduaz. - Kausa-efektua ulertzen du.
Ezaugarri psikomotorrak	<ul style="list-style-type: none"> - Gero eta gaitasun handiagoa dute mugimenduak kontrolatzeko eta koordinatzeko.

	<ul style="list-style-type: none"> - Motrizitate lodia menperatzen du eta fina garatzen du. - Lau norabideetan orientatzen da. - Oreka helduagoa du. - Zailtasunik gabe egiten du salto.
Ezaugarri sozioafektiboak	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako umeekin enpatia izaten hasten dira. - Bigarren mailako emozioak ezagutzen hasten dira (harrotasuna, lotsa, errua, nostalgia, ...). - Emozioak hobeto ulertzen dituzte. - Erantzukizunak har ditzake - Txikiagoak babesten ditu. - Ez da hain egozentrikoa. - Jokoen arauak betetzen hasten da.

3.3.2.Eskola

Behin Haur Hezkuntzako etapa amaitu eta hiru hilabetera (udako oporrek irauten dutena) ikasleek aldaketa ugariri egin behar diote aurre, eta aldaketa horiek curriculum premiei erantzuten diete, haurraren berezko beharrizan psikoebolutiboak baino gehiago. Haur Hezkuntza ikuspegi global eta hezitzaileago batetik planteatzen den bitartean, Lehen Hezkuntzan ikusmolde akademizistago baterantz joan ohi da (Argos et al, 2011).

Gainera, kontuan hartu beharko genuke Lehen Hezkuntzako 1. mailan hasten diren haur askok 5 urte dituztela oraindik, urte horretako abendura arte 6 urte bete baititzakete. Beraz, baliteke ikaskideen artean ia urtebeteko aldea egotea, eta klase berean heldutasun- eta garapen-maila desberdinak egotea.

Jarraian, Argos, Ezquerria eta Castrok (2011) eta Tamayok (2014) euren lanetan adierazten dutena kontuan izanik, Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako

eta Lehen Hezkuntzako 1.mailako gelen artean ematen diren aldaketak ikusiko ditugu. Honako aldagai hauek hartu dira kontuan: espazioa, denbora-egitura, baliabide didaktikoak, taldekatzeak eta ebaluazioa.

Espazioa

Haur Hezkuntzan, normalean, Lehen Hezkuntzakoek baino espazio zabalagoa izaten dute hurrek. Gainera, askotan, haurren geletan bainugelak eta patiora zuzenean komunikatzen duen ate bat egoten da.

Beste faktore garrantzitsu bat Lehen Hezkuntzako lehen mailako txoko edo jarduera-eremu espezifikoa dira. Txikienek txoko bat izaten dute gauza bakoitza egiteko; irakurtzeko, jolasteko, atsedean hartzeko, etab. Lehen Hezkuntzara iristean, aldiz, normalean haurrak leku berean esertzen dira ia jarduera guztiak egiteko.

Gainera, mahaien antolaketak partaidetza eta talde-izaera handiagoa izan ohi du Haur Hezkuntzako etapan; izan ere, mahai eta aulki txikiagoak egoten dira, 4 eta 6 haur arteko taldeetan jarriak normalean. Lehen Hezkuntzan, aldiz, haien tamaina handitu eta banaka edo binaka jartzeko joera dute.

Denboraren egituraketa

Alde handia dago Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ordutegien malgutasunaren artean; izan ere, nahiz eta astean zehar bete beharreko orduak 25 izan bientzat, txikienen etapan Heziberrik (2016) honako hau zehazten du:

“Etaparen guztian, ikuspegi globalizatzaile bat hartuta ezarriko da eskola-ordutegia, eta, jarduerak antolatzean, jarduera-mota eta erritmo askotarikoak eta atsedena txandakatzeko aukera emango zaie hurrei.”

Lehen Hezkuntzan, berriz, ordutegiak guztiz araututa daude, arloen arabera, eta hainbat maisurekin egiten dute lan, hau da, espezialistekin (Gorputz Hezkuntza, Ingelesa, Musika, Pedagogia Terapeutikoa, etab.). Haur Hezkuntzan, aldiz, ez dute horrenbeste espezialistekin lan egiten.

Errekurtso didaktikoak

Haur Hezkuntzan ohikoa da jatorri desberdineko hainbat material eta baliabide erabiltzea, hala nola: argitaletxeetakoak, hondakinak, norberak egindakoak, etxetik ekarritakoak, etab. Gainera hauek imprimakiak edota eskuz maneiatzekoak izan daitezke. Lehen Hezkuntzako lehen mailan, berriz, argitaletxeetatik datozen materialak erabiltzea lehenesten da.

Halaber, jokoak oso rol ezberdina du etapa bakoitzean. Haur Hezkuntzan, jarduera ludikoak lehentasuna du hezkuntza praktikan; bestalde, Lehen Hezkuntzan, jolasa bigarren mailan geratu ohi da eta une eta jarduera espezifikotarako erabiltzen da.

Ebaluazioa

Haur Hezkuntzan ebaluazioa globalagoa da, eta garrantzi handia ematen zaie ez soilik haurrek lortutako emaitzei, baita horiek lortzeko garatutako prozesuei ere. Lehen Hezkuntzan, berriz, lorpen akademizistak baino ez dira kontuan hartzen gehienetan, eta helburu zabalagoak bistatik galtzen dira; hala nola, pertsonetikiko eta inguruko elementuekiko tolerantzia eta haurren autonomia ikaskuntzarako elementu gisa edo sormenaren garrantzia, besteak beste.

Ezagupen arloak

Azkenik, ikus daitekeen beste aldaketa garrantzitsu bat zera da, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ematen diren ezagutza-arloak oso desberdinak direla kopuruari eta edukiari dagokienez. Haur Hezkuntzan, arloen helburuak gehiago zentratzen dira beren autonomia garatzean eta beren burua ezagutzen ikastean; Lehen Hezkuntzan, ordea, lehen aipatu dugun bezala, helburuak akademizistagoak dira.

Ondorengo taula honetan aurretik aipatutako aldaketa horien zerrenda bat egiten da, ematen diren aldaketa nagusiak zerrendatuz.

Dimentsioa	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza
Orientazio pedagogikoa	- Globala eta konstruktiboa	- Akademizista
Espazioa	- Malguagoa, mugitzeko askatasun handiagoa. Gorputz-kontaktu handiagoa. - Jolas-espazio libreak eta gidatuak dituen gela. - Jolasdun patioa	- Malgutasun gutxiago, mugimendu zehaztuagoak. Gorputz-kontaktu gutxiago. - Jolas-espazio gutxiago duen gela. - Jolasik gabeko patioa. Kirolpistak.
Denbora	- Malguagoak - Denbora gutxiago eserita	- Zehatzagoak - Denbora gehiago eserita
Errekurtso didaktikoa	- Askotarikoak - Fitxa eta material oso bisualak - Jarduera ludikoagoak eta malguagoak	- Zehatzagoak - Material monotonoa - Jarduera formalagoak eta zehatzagoak
Ebaluazioa	- Bigarren mailako papera - Globala eta jarraitua	- Paper nagusia - Emaitzetara bideratua

3.3.3.Familia

Azkenik, baina ez horregatik garrantzi gutxiagorekin, familiak aipatzea falta zaigu, funtsezko eragile baitira prozesu honetan. Lehen pertsonan sentitzen dute beren seme-alabei gertatzen zaien guztia. Gainera haiek

ezagutzen dituzte hobekien euren seme-alabak eta eragin handia dute haiengan.

Galánek eta Garcíaak (2008) esaten digutenez, kontuan hartu behar da familiek, txikienek bezala, zalantzaz bizi dutela aldaketa-prozesu hori. Hori dela eta, funtsezkoa da familiaren eta maisu-maistren artean komunikazio ona egotea, elkarrekin norabide berean joan ahal izateko eta haurren onerako, gurasoek prozesu hori erraztean paper garrantzitsua betetzen baitute.

Halaber, Henderson eta Berlak (1994) egindako ikerketan ikusten dugu gurasoek euren seme-alaben hezkuntzan parte hartzen dutenean, seme-alabek portaera eta jarrera positibo hobeak izateko eta emaitza akademiko hobeak lortzeko aukerak areagotu egiten direla (Sañudon aipatua, 2015).

Hau esanda, kontuan izan behar da familiarekin komunikazioan egoteak trantsizioari ekar diezazkiokeen onurak, gurasoen eragina oso garrantzitsua baita hezkuntza-prozesu osoan zehar.

3.4. HHTik LHra pasatzen diren haurren ohiko jarrera aldaketak

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, Lehen Hezkuntzako 1. mailara iristen diren ikasleak Haur Hezkuntzan zenbait jarduera eta errutina egiten irakatsiak daude, eta horiek, etapa berri honetara iristean, desagertu egiten dira. Hori dela eta, sarritan aldaketak gerta daitezke haur horien jokabideetan; izan ere, haurrak ohituta daude eskolara joatean gauza batzuk egitera, eta hiru hilabete geroago, uda ondoren itzultzean beste batzuk egin behar dituzte, oro har gogorragoak eta are gutxiago motibatzaileak.

Haur Hezkuntza amaitu eta Lehen Hezkuntzara pasatzean umeak eskolaurreko adinari dagozkion ezaugarri psikologikoei eusten die oraindik, garapena prozesu jarraitua baita, baina pixkanaka eta progresiboki egiten dena. Horregatik, haurrak bizitzako aldaketa berrietara egokitze denbora bat behar du, lehen hilabeteetan hasi eta ikasturte osora arte iraun dezakeena, bere berezitasun indibidualen arabera, hauek

ere inguru familiarrera eta soziokulturalera ere lotuta baitoaz. (Rodríguez eta Turón, 2007).

Tamayo (2014), Rodríguez eta Turón (2007) eta Galán eta García (2008) bezalako autoreak ados daude etapa batetik bestera aldatzearen ondorioz Lehen Hezkuntzako lehen mailan ager daitezkeen zenbait jokabide daudela, eta berehala edo denbora asko geroago gerta daitezkeela esatean.

- Haur batzuek zailtasunak dituzte orientabideak eta azalpenak ulertzeko, eta horrek ahalegin handiagoa eskatzen du jardueretan kontzentratuta egoteko. Ondorioz, eskolako zereginekiko interesa galtzeko arrisku handia dago.
- Beste batzuk ez dira behar adina kontzentratzen, eta mugitzeko urduritasuna erakusten dute, hau da, oso maiz mugitzen dira eta ondorioz, behin eta berriz joan nahi izaten dute komunera edo ura edatera.
- Haur batzuek, atzera egiten dute ohiturak eta trebetasunak bereganatzean eta jolasa nahi dute une oro.
- Batzuek izerdia, negarra eta Haur Hezkuntzako guraso edo/eta irakaslearekiko atxikimendua adierazten dute, eta horrekin batera, irakaslana betetzeko ezezkoa ematen dute.
- Kasu batzuetan, gaueko loaren nahasmenduak izaten dituzte, eta ez dute goiz jaiki nahi izaten eskolara joateko.
- Beste batzuk gelan lo hartzeraino inhibitzen dira, irakasleak zereginei ikuspegi ludikoa ematen ez dienean.
- Egonezina, urduritasuna eta frustrazioa ere ager daitezke irakaslearen eskakizunen aurrean, baita Haur Hezkuntzako gelara itzultzeko gogoia ere.

Ondorio horiek gatazkak eta krisiak eragin ditzakete, haur batzuegan besteengan baino gehiago, bakoitzaren ezaugarrien eta etxeko eta eskolako egoera maneiatzeko moduaren arabera. Horregatik, jokabide horiek ikasturtean zehar desagertu beharko liriateke, ikasleak egoera berrira egokitzen joan ahala (Rodríguez eta Turón, 2007).

Rodriguezek eta Turonek (2007) bereziki aipatu dute haurrak ez direla aldaketa-prozesu horretan sufritu dezaketen bakarrak, gerta baitaiteke irakasle ahulagoak egotea eta nahi ez diren jokabideak izatea. Horren adibide, irakasle batzuek antsietatea, etsipena, porrotaren beldurra edo ezagutzak transmititzeko prozesua haurraren argi ez iristeko beldurra agertzen dute.

Arestian adierazitako guztiagatik, ados gaude Galánekin eta Garcíarekin (2008); izan ere, oso garrantzitsua da maisu-maistrak jabetzea zein garrantzitsua den aldaketa hori progresiboki egitea, jarraitasun logiko batekin, etapa batetik bestera bat-bateko aldaketarik gerta ez dadin, horrela hezkuntza etengabeko prozesu gisa bermatuz. Hori dela eta, Tamayok (2014) azpimarratzen du irakasleek jarduteko jarraibide jakin batzuk izatea beharrezkoa dela, ikasleak ahalik eta denbora laburrenean eta baldintzarik onenetan egokitu ahal izateko.

3.5. Prozesua errazteko pausuak

Aurretik aipatu den bezala, bi kurtsoen artean aldaketa ugari jasan behar dituzte ikasleek, eta honek askotan arazoak ekartzen ditu, ez baitaude trantsizio hori egiteko prest. Horregatik, garrantzitsua da irakasleek bide hori ahalik eta gehien erraztea, eta horretarako, Galán eta García (2008) eta Tamayo (2014) bezalako autoreek hainbat estrategia aipatzen dituzte.

Hasteko, trantsizioan parte hartzen duten bi etapetako irakasleek ikasleei buruzko informazioa trukatu behar dutela diote, eta antolaketa eta metodologia akordioak lortu, bi ikasturte horien artean ahalik eta jarraikortasun handiena lortzeko. Horretarako:

- Lehen Hezkuntzako irakasleek Haur Hezkuntza amaitzen duten ikasleen oinarritzko ezaugarriak ezagutu behar dituzte.
- Proposamen didaktikoen formatu bakarra izan behar dute, eta bereziki garrantzitsua da bi etapetan irakurketa eta idazketa metodo komun bat partekatzea.
- Esperientzia arloen eta esparruen arteko koherentzia eta lotura indartu behar dira.
- Printzipio metodologikoen jarraitasuna egon behar da.

- Jarduerak, materialak, baliabideak, taldekatzeak eta denborak eta espazioak gutxieneko jarraitasuna bermatu behar dute.

Bestalde, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek jarduerak elkarrekin egin behar dituztela zehazten dute, horrela ikasleek espazioak eta irakasleak ezagutu ditzaten. Horretarako hainbat jarduera proposatzen dituzte:

- Lehen Hezkuntzako eraikinera bisitak egitea, datorren ikasturtean erabiliko dituzten hainbat gelatan jarduerak egiteko (musika, liburutegia, informatika, gorputz-hezkuntzako pabiloia...).
- Planifikatutako bisitak egitea Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasgelara.
- Jolastokian elkarrekin jolastea.
- Lehen Hezkuntzakoek euren trantsizioaren bizipena azaltzea txikienei. Horrela, haurrak babestuago senti daitezke eta nagusiak, berriz, txikienen gidari.

Hau esanda, egiaztatu dezakegu haurrek hilabete batzuetan bizi duten aldaketak eragin handia izan dezakeela jokabide edo emozio mailan. Horregatik, irakasleak egoeraz jabetu behar gara eta errealitate horretara egokitu, betiere ikasleen garapen egokiari lagunduz.

4. METODOLOGIA

Lan honetako ikerketa aurrera eramateko inkestak erabiltzea aukeratu da, hau da, metodologia kuantitatiboa, informazioa iturri desberdin askotatik eskuratzeko ahalmena ematen baitu, eta oraingo Covid-19 egoera dela eta, metodorik egokiena zela iruditu baitzaigu.

4.1. Parte-hartzaileak

Lagina Euskal Autonomia Erkidegoko 208 parte-hartzailek osatu dute; horietatik 28 Haur Hezkuntzako irakasleak dira, gaur egun 5 urteko gelan daudenak edo azkenaldian ikasturte honetan egon direnak, 27 Lehen Hezkuntzako irakasleak dira, ikasturte honetan lehen mailan lan egin dutenak edo berriki lan egin dutenak, 83 Lehen Hezkuntzako 1. maila honetan hasi diren

haurren gurasoak edo legezko tutoreak dira, eta azkenik, 70 Lehen Hezkuntzako 2.mailako ikasleen gurasoak edo legezko tutoreak dira.

Bi maila hauetako gurasoen ikuspuntua alderatu nahi izan dugu, Covid-19 egoera dela eta, aurtengo trantsizio egoera hau desberdin bizi izan delako. Trantsizioa aurten egin duten ikasleek aldaketa horren zati handi bat etxean pasatu behar izan dute, konfinamendua dela-eta. Horregatik aurreko urteetan gertatu ez den egoera oso desberdin bat bizi behar izan dute. Hala ere, gure asmoa orain arte gertatutakoan zentratzea izan da.

Lehenik eta behin, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleen lagina deskribatuko dugu, eta, ondoren, haurren gurasoena.

Inkestari erantzun dioten irakasleei dagokienez, azpimarratzekoa da gehienek ikastetxe publikoetan egiten dutela lan; izan ere, Haur Hezkuntzako inkestatuen % 75ak eta Lehen Hezkuntzako irakasleen % 77,8ak hala adierazi baitute. Gainerakoek itunpeko ikastetxeetan egiten dute lan. Irakasleen adinari dagokionez, Haur Hezkuntzako irakasle gehienek 41 urte edo gehiago dituzte, %71,4ak, hain zuzen ere. Honi jarraiki %17,9ak 22 eta 30 urte bitartekoak dira, eta %10,7ak baino ez dute 31 eta 40 urte artean. Bestalde, Lehen Hezkuntzan erantzun duten pertsonen adina ere antzerakoa izan da; % 51,8ak 41 urte edo gehiago ditu, % 29,6ak 31 eta 40 urte bitartean, eta azkenik, % 18,5ak 22 eta 30 urte artean.

Inkestatutako familietan aita, ama edo legezko tutoreak 73 mutilen eta 78 neskatoren gurasoak dira. Familia horien seme-alaben zentro motari dagokionez, %84,3ak ikastetxe publikoetan ikasten dute, eta %15,7ak itunpekoetan. Inkestan aipatzen diren 153 haurretatik 37k ez dute anai-arrebarik, 49k anai-arreba txikiak dituzte, eta 67k neba-arreba zaharragoak. Azken abantaila hori gurasoentzat da, lehenago ere bizi izan baitute ikertzen ari garen trantsizioa. Ume gehienek (%91,7) Haur Hezkuntzako ikastetxe berean jarraitzen dute, eta % 8,3ak aldatzea erabaki du.

Jarraian, gure laginen datu nagusiak bildu ditugu taula honetan. Agertzen diren datuak aukera horiek markatu dituzten pertsonen kopuruari buruzkoak dira, ez ehunekoei buruzkoak.

	Haur Hezkuntzako irakasleak	Lehen Hezkuntzako irakasleak	1.mailakoen gurasoak	2.mailakoen gurasoak	Guztira
Parte hartzaile kopurua	28	27	83	70	208
Eskola publikoa	21	21	70	59	171
Itunpeko eskola	7	6	13	11	37
30 urte baino gutxiago	5	5	-	-	10
31 eta 50 urte artean	7	11	-	-	18
51 urte baino gehiago	16	11	-	-	27
1-5 urteko irakaskuntza esperientzia	6	5	-	-	11
6-15 urteko irakaskuntza esperientzia	4	9	-	-	13
15 urte baino gehiagoko irakaskuntza esperientzia	18	13	-	-	31
Bi etapak eraikuntza desberdinean	12	10	-	-	22

Bi etapak eraikuntza berean	16	17	-	-	33
-----------------------------	----	----	---	---	----

4.2. Ebaluazio instrumentua

Ikerketa hau egiteko lau galdetegi erabili ditugu. Hauek galdera itxiz osatuta daude, hiru, lau edo bost erantzun-aukerarekin, eta marko teorikoan batutako informazioan oinarrituz prestatu dira. Galdetegiak lan honen tutoreak balioztatu ditu.

- I. galdetegia: (I. eranskina) Haur Hezkuntzako irakasleei zuzendua. 25 item ditu, 4 kategoriatan banatuta. Lehena, maisu-maistren eta diharduten zentroen ezaugarri profesionalak dira, eta gure lagina nolakoa den azaltzen digu. Bigarrena, "Etapen arteko koordinazioa", 13 itemez osatua. Item horietan hainbat aldagai planteatzen dira, hala nola, iritzi pertsonala, bilera kopurua, talde-lana, eskola-giroa eta lan-metodoa. Hirugarren kategoriak, "Familiak" izenekoak, 2 item ditu, eta bertan aldagai bati erreparatzen zaio: transmititzen den informazioari buruz hausnartzea. azkenik, laugarren kategoriak, "Iragaitzarako prestatzea" izenekoak, markatzen du bi galdetegi horien arteko aldea; bertan, 5 item daude, eta horiek hainbat aldagaitan banatzen dira, hala nola, ohituretan, bileretan eta jardueretan.
- II. galdetegia: (II.eranskina) Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendua. 30 item ditu, 4 kategoriatan banatuta. Haur Hezkuntzakoan bezala, lehenengoa inkestatuen eta zentroen ezaugarri profesionalei buruzkoa da. Bigarren kategoriak, "Etapen arteko koordinazioa" izenekoak, I. galdetegiaren ildo berari jarraitzen dio, baina 15 galderarekin, Haur Hezkuntzako irakasleen aldagai berberekin. Azkenik, laugarren kategoriak, "Lehen Hezkuntzako 1. mailako ikasturte hasieran antzeman diren ikasleen jokabideak" izenekoak, bi aldagai hartzen ditu kontuan: batetik, jokabide jakin bat gertatzen zaien haurren kopurua, eta, bestetik, zein maiztasunekin gertatzen den.

1.datu profesionalak, 2. Koordinazioa, 3. Familiak eta 4. Haurren jokabideak.

- III. galdetegia: (III.eranskina), Lehen Hezkuntzako 1. maila honetan hasi diren haurren gurasoei eta legezko tutoreei zuzendua. 20 item ditu, hiru kategoriatan banatuta. Lehenengo kategoriak ere gurasoei eta seme-alabei buruzko informazioa biltzea du helburu, eta 5 itemek osatzen dute. Bigarren kategoriak, "Eskola" izenekoak, 9 item ditu, eta honako aldagai hauek ditu: jarduerak, ikaskideak, jarrerak, eta informazio- eta koordinazio-prozesua. Azkenik, galdetegi honen hirugarren kategoriak "haurrek Lehen Hezkuntzako 1. mailan hastean izan ditzaketen jokabideak" du izena, 9 item ditu eta honako aldagai hauei erreparatzen zaie: interesa, despisteak, erantzukizuna eta haurren jokabideak.
- IV. galdetegia: (IV.eranskina) Lehen Hezkuntzako 2. maila honetan hasi diren haurren gurasoei eta legezko tutoreei zuzendua Azken galdetegi honek aurrekoaren galdera ia berdinak ditu, moldaketaren bat salbu. Izan ere, aurtengo egoera desberdina izan denez, iazko trantsizioa nolakoa izan zen ikusi ahal izateko egina dago.

4.3. Prozedura

Azterlana egiteko prozedura inkesta bat da, eta, aurreko atalean adierazi den bezala, berariazko galdetegiak erabili dira azterlan honetan parte hartu duten eragile bakoitzarentzat.

Ikerketan parte hartu duten irakasle eta guraso gehienak ez dira aurretik hautatu, hau da, ausazkoak izan dira. Korreozko mezu bat (V.eranskina) bidali zaie EAEko eskola desberdinetako zuzendariei, galdetegiak atxikituz, eta hauek euren ikastetxeko irakasle eta gurasoei helarazi dizkiete.

Inkestak "Google Forms" plataformaren bidez egin dira, eta esan bezala, posta elektronikoaren bitartez zabaldu dira. Inkesta guztietan sarrera txiki bat jasotzen da, gure azterlanaren helburua adieraziz eta parte-hartzaile guztien anonimotasuna bermatuz. Gainera, galdetegiak gure oinarri teorikoan eta planteatutako helburuetan bildutako informazioan oinarrituta egin dira.

4.4. Emaitzak

Jasotako datuekin analisi deskribtiboak burutu dira Excel programaren bidez, eta emaitzak hiru bloke handitan antolatu dira, taula batean (VI.eranskina) ordenatu direnak, menpeko aldagaiak eta independenteak sailkatuz. Hiru bloke handi horiek aldagai independenteak dira, eta honen barruan sailkatutako zortzi taldeak menpeko aldagaiak.

Hasteko irakasleen koordinazio eta prestakuntzaren inguruko datuak batuko dira honako azpi-talde hauetan: etapen arteko koordinazioari buruzko pertzepzioa, irakasleen arteko elkarlana eta harremana, HHko eta LHko edukien arteko harremana, ikastetxeko trantsiziorako plana, trantsizioaren inguruan emandako informazioa eta etapaz aldatzeko hurrekin egindako prestakuntza.


Bigarrenik, familien pertzepzioaren inguruko datu bilketa egingo da, kontuan izanda zein den euren etapen koordinazioari buruzko pertzepzioa, trantsizioaren inguruan jaso duten informazioa eta etapaz aldatzeko hurrekin egindako prestakuntza.

Amaitzeko, haurren zailtasunen eta jokabide aldaketen inguruko informazioa jasoko da, bai irakasleen ikuspuntutik eta baita familien ikuspuntutik ere, kontuan izanda ikasturte honetako esperientzia desberdina izan dela Covid-19a dela eta.


4.4.1. Irakasleen koordinazioa eta prestakuntza

a. Etapen arteko koordinazioari buruzko pertzepzioa

Inkestari erantzun dioten irakasle ia guztiak, LH zein HHkoak, guztiz ados daude bi etapen arteko koordinazioa funtsezkoa dela esatean; izan ere, %2ak soilik adierazi du koordinazio hori ez dela beharrezkoa. Hala ere, hau ematen den galdetzerako orduan, koordinazio hori hain ona ez dela ikus daiteke, %45,5ak honela adierazi duenez.




b. Irakasleen arteko elkarlana eta harremana



Bi etapetako irakasleek diotenez, ikasturtean zehar ez dira askotan biltzen, gehiengoak, %50,9ak, 1-2 aldiz elkartzen direla aitortzen baitute. Gainera, %45,4ak aipatzen duenez, bilera hauetan oso gutxitan hitz egiten da Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizio horren inguruan.

Bestalde, inkestari erantzun dioten gehienek adierazi digute beste etapako kideekin izandako harremana ona izan ohi dela, HHko irakasleen %64,3ak horrela adierazi duelarik, eta LHkoen %44,4ak. Hala ere, %18,5ak adierazi du hau ez dela oso ona. Honekin jarraituz, irakasleen plantilla ez da asko aldatu urte batetik bestera, soilik % 21,4ak esan baitu hau aldatu dela.


c. HHko eta LHko edukien arteko harremana



Edukiei dagokienez, irakasleen %45,5ak uste du edukien artean koherentzia eta lotura handi samarra dagoela, eta gainera %36,4ak dio Lehen Hezkuntzak askotan Haur Hezkuntzako edukiak baldintzatzen dituela. Hala ere, irakaslegoaren oso zati txiki batek, %7,2ak, onartzen du beste etapako irakaslearekin aritzen dela lanean LHko hasierako ebaluazio probak diseinatzeko.

Horrez gain, irakasleen %38ak adierazten du irakurketa/idazketa metodo berak erabiltzen dituztela bi etapetan, Haur Hezkuntzakoak gailentzen direlarik.


d. Ikastetxeko trantsiziorako plana



Taulan ikus daitekeen bezala, ikastetxe gehienetan ez dago Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa errazteko protokolo edo programarik, eta modu berean, oso eskola gutxitan ari dira hau sortzeko prozesuan.

e. Trantsizioaren inguruan jasotako/emandako informazioa

Atal honetan bi etapetako irakasleak bat datozela ikus daiteke. Inkestatutako irakasleen gehiengoak adierazten du trantsizioaren inguruan gurasoei ematen zaien informazioa egokia eta nahikoa dela, %47,ak, hain zuzen ere. %38,5ak ikuspuntu neutroa erakusten du, eta %11,35ak uste du transmititzen den informazioa eskasa dela.




Honen barruan, Haur Hezkuntzako irakasleek trantsizio horri aurre egiteko azalpen zehatzagoak ematen dituztela aitortzen dute, %46,4ak %37aren aurrean. HHko irakasleek ematen dituzten iradokizun horien artean gehien nabarmentzen direnak hurrengo kurtsoan haurrek aurkitu ditzaketen zailtasunen ingurukoak izan ohi dira, eta gurasoek izan ditzaketen zalantzen argipenak, beraiek hartu beharko luketen paperaren azalpenarekin batera. Gainera, irakasle batzuek aipatu dute ematen dituzten azalpenak pertsonalagoak egiten dituztela, ume bakoitzaren garapen emozional zein eduki mailakoa kontuan izanik, aholku zehatzagoak emanaz.

Bestalde, LHko irakasleei dagokienez, gehienbat ikasturte hasierako bilereira egiten diete erreferentzia, non, gurasoei bi etapa horien arteko aldea komentatzen zaien; adin horretako haurren ezaugarriak, klasearen antolaketa, lan egiteko moduan dauden aldeak, eraikin berriko espazioak, etab.

Gainera, euren seme-alabekin pazientzia izatea eskatzen zaie, eta ume bakoitzak bere erritmoa duela azaltzen zaie.

f. Etapaz aldatzeko haurrekin egindako prestakuntza



Grafikoan beha daitekeen bezala, irakasleei Haur Hezkuntzako 5 urteko gela datorren ikasturterako prestakuntzan oinarritu behar den galdetzean, adostasuna adierazten dute %45,7 batean, nahiz eta LHkoek adostasun handiagoa erakusten duten. Ildo beretik, Haur Hezkuntzako irakasleen %39 batek etapa aldaketa horretara moldatzeko prestakuntza-jarduerak egiten dituzte euren ikasleekin, eta LHko irakasleen ehuneko handi batek, %70,3ak hain zuzen, hasierako ebaluazio-frogak egiten dizkiete euren ikasleei duten mailaren inguruan orientatzeko.

Gainera, hurrek etapaz aldatzean zer aldaketa izango dituzten aurrez erakusteko, inkestatutako Haur Hezkuntzako irakasleen %96ak datorren urtean erabiliko dituzten instalazioak erakusten die euren ikasleei, eta %50ak jarduera bateratuak antolatzen ditu bi etapen arteko ikasleen artean aritzeko.

Azkenik, hurrengo kurtsoan erabiliko ez dituzten ohiturak kentzearen alde dauden galdetzean, erdiak esan du oraindik Haur Hezkuntzan daudela eta


ohitura horiek aurrerago ezabatuko dituztela, eta ildo beretik, Lehen Hezkuntzakoek ohitura berriak hartzen joan behar direla uste dute.

4.4.2. Familien pertzepzioa


Atal honetan, aurtengo Covid-19 egoera dela eta, gurasoek modu desberdinean bizi izan dute euren seme-alaben trantsizio hau, eta horregatik inkestan trantsizioa aurten eta egoera normalean bizi izan duten gurasoen arteko iritzi alderaketa egin nahi izan da.

a. Etapen arteko koordinazioari buruzko pertzepzioa

Gurasoen %98aren ustez oso garrantzitsua da bi etapen arteko koordinazioa egotea, baina %49,5ak ez du uste euren seme-alaben ikastetxeetan koordinazio ona ematen denik.



b. Trantsizioaren inguruan familiek jasotako informazioa



Trantsizioa modu errazago batean eramateko garrantzitsua da aldez aurretik informazio jakin bat jasotzea, eta gurasoen ehuneko oso gutxi batek deritza jasotako informazio hori aproposa izan dela: %12ak bakarrik.


Trantsizioaren inguruan ematen zaien informazioaren gain, egoera normalean inkestatutako gurasoen esperientziatik, ia erdien ikastetxeetan (%45,8) ez zen inolako informazio-bilerarik egin Haur Hezkuntzako ikasturte amaieran; aitzitik, %33,3ak izan zuen bilera hori, eta gainerako %20,8ak ez daki bilerarik egin zen bere ikastetxean.


Bestalde, trantsizioa ikasturte honetan bizi izan duten guraso gehienek, %71ak, ez dute ikastetxetik euren hurrekin konfinamenduan zehar aurrera eramateko jarduera proposamenik jaso. Izan ere, inkestan konfinamenduan zehar faltan bota izan duten hori izendatzea eskatu zaie, eta askotariko erantzunak jaso dira. Guraso askok egoera hau guztiontzat berria izan dela ulertzen dute, eta irakasleek euren eskuetan zegoen guztia eman dutela deritzote. Beste batzuek, aldiz, harreman pertsonalagoa bota dute faltan. Euren harremana, batez ere, e-mail bidezkoa izan dela aitortu dute, eta beste kideak ikusteko aukera gutxi egon direla esan dute. Horrez gain, etxe bakoitzeko egoera guztiz desberdina izan da, eta askok zailtasun ugari aurkitu dituzte euren seme-alabei laguntzerako orduan; denbora falta, informazio falta, etab.

c. Etapaz aldatzeko hurrekin egindako prestakuntza

Etapaz aldatzeko prestakuntzari dagokionez, askotariko jarrerak ikus daitezke, baina gehiengo batek, hau da, gurasoen %57,4ak uste du ez dela nahikoa edo prestakuntza hori hobetu ahalko zela.


IX eta X. Grafikoak: etapaz aldatzeko hurrekin egindako prestakuntza





Beste aldetik, konfinamenduan zehar telematikoki egin den prestakuntzaren inguruan galdetzean, berriz ere ehuneko handi batek (%60,7) uste du ez dela nahikoa izan, nahiz eta egoera ikusita irakasleek egindako esfortzua kontuan hartu duten.


XI.Grafikoa: Konfinamenduan zehar telematikoki egin den prestakuntza



- Bai, haurrak oso prestatuak doaz
- Bai, ondo dago
- Hobetu ahalko zen
- Ez, ez da nahikoa
- Ez dakit

4.4.3. Haurren zailtasunak eta jokabideak

a. Irakasleen ikuspuntutik




Etapaz aldatzean haurrek izan dituzten zailtasunen inguruan galdetzean, irakasleek ez dute ikusi arazo handirik dagoenik haien orientabide eta azalpenak ulertzeko orduan, %44ak diotenaren arabera, hau oso gutxitan gertatzen baita. Gainera, kurtsoak aurrera egiten duen heinean, %70ak ez du nabaritzen ikasleek interesa galtzen ari direnik.


Hala ere, ikasturte honetan bizi izandako pandemia dela eta, irakasleek hainbat zailtasun aurkitu dituzte euren ikasleekin aritzeko orduan. Konfinamenduan zehar familia batzuek lan asko egin dute haien haurrekin, baina beste batzuek, aldiz, ezer ez. Hori dela eta, ikasleen arteko ezagutza-maila oso desberdinak aurkitu dituzte klasean, eta horrek irakasleen lana konplikatzera eragin du. Gainera, ikasleen euskara maila orokorra jaitsi dela nabaritu dute. Beste batzuek, ordea, hasiera gogorra egin zaien arren, haurrak azkar egokitu direla deritzote, eta etxetik oso kontzientziatuta etorri direla aitortu dute.

Bestalde, jokabide aldaketei dagokienez, gehien nabarmendu dena komunera joateko beharra maiztasunez adieraztekoa izan da, inkestatutako irakasleen %48,1ak diotenaren arabera, eta %40,7ak uneoro jolastea eskatu du.

4.5. Familien ikuspuntutik



Ikasleen guraso gehienak (%74,1) ados daude euren seme-alabek Lehen Hezkuntzako etapa ilusioz hasi zutela esatean. Gainera nabarmentzekoa da Covid-19 egoera eta gero kurtsoa hasteko gogoek gora egin dutela. Baina hala ere, modu batean ala bestean, euren ere eragina izan dutela deritzote.



Bestalde, haurren jokabide aldaketei dagokienez, antzerako datuak aurkitu dira ikasturte honetako zein aurreko ikasturteko ikasleengan. Aurtengo ikasturtean hurrek urduritasun gehiago erakutsi dute ikastetxeari buruz hitz egitean, baina ez da nabarmena izan. Gainera, bi ikasturteetako

gurasoak ados daude euren seme-alabek erantzukizun berriak hartu dituztela esatean, hala nola; motxila antolatzea, bazkaria hartzea, etab.

4.6. Emaitzen eztabaida

Aurreko atalean galdera bakoitzaren emaitzak ikusi ditugu. Jarraian, eragileen emaitzak alderatuko ditugu galdera edo kategoria baten aurrean.

Gure inkestek diotenez, inplikaturako hiru eragileek (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleak eta familiak) uste dute oso garrantzitsua dela bi etapa horien arteko koordinazioa, baina errealitatean euren ikastetxeetan horrelakorik ematen ez dela deritzote. Hala eta guztiz ere, bi irakasle taldeak bat datoz normalean ikastetxeetan urtean behin edo bitan beste etapako ikaskideekin bakarrik biltzen direla aitortzean. Aldi berean, biak ados daude koordinazio egokia izateko bilera gehiago egin beharko liratekeelako ustean. Oro har, irakasleen artean harreman ona dagoela adierazten digute, nahiz eta ikastetxe erdietan, gutxi gorabehera, bi etapetako eraikinak bereizita egon. Bi etapetako irakasleen ustez, inkestatuen erdiek, gutxi gorabehera, adierazi dute ia plantilla osoa aurreko ikasturteko bera dela, eta beste erdiek adierazi dute aurreko ikasturteko klaustrotik ikaskide batzuk baino ez direla geratzen, eta horrek asko zaildu dezakeela koordinazio ona egitea.

Lehen Hezkuntzako etapak Haur Hezkuntzako azken ikasturteko edukiak markatzen dituela pentsatzea nahiko zabaldua dago bi taldeetan. Hala ere, bi etapetako irakasleen artean eztabaida puntu bat aurkitzen dugu. Haur Hezkuntzako irakasle gehienek ez dute uste euren kurtsoa LHrako prestatzeko bideratuta egon behar denik. Lehen Hezkuntzako irakasle gehienek, aldiz, baietz uste dute.

Era berean, ez dago Haur Hezkuntzako irakasleei Lehen Hezkuntzako hasierako ebaluazio-probak diseinatzeko laguntza eskatzeko joerarik, hau aukera ona izanda. Izan ere, HHko irakasleak dira hurrek aurreko etapen ikasi dituzten edukiak hobekien ezagutzen dituztenak, eta oso eraginkorra izango litzateke bi etapetako irakasleak hauek diseinatzean batera aritzea. Gainera,

irakasleen erdiak baino gutxiagok erabiltzen dute idazketa zein irakurketa metodo bera bi ikasturte hauetan zehar, ikasleen lana zaildu dezakeelarik.

Bestalde, trantsizioaren inguruan irakasleek emandako eta gurasoek jasotako informazioari dagokionez, irakasle gehienek uste dute nahikoa eta egokia dela, baina guraso gehienek jarraibide argiagoak espero dituzte. Batez ere, trantsizioa aurrean egin duten haurren gurasoak, nahiko galduta aritu dira informazio horren falta dela eta. Guraso askok egoera hau guztiontzat berria izan dela ulertzen dute, eta irakasleek euren eskuetan zegoen guztia eman dutela deritzote. Beste batzuek, aldiz, harreman pertsonalagoa bota dute faltan. Euren harremana, batez ere, e-mailen bidezkoa izan dela aitortu dute, eta beste kideak ikusteko aukera gutxi egon direla esan dute. Horrez gain, etxe bakoitzeko egoera guztiz desberdina izan da, eta askok zailtasun ugari aurkitu dituzte euren seme-alabei laguntzerako orduan; denbora falta, informazio falta, etab.

Amaitzen joateko, haurrek aurkitutako zailtasun eta jokabide-aldaketen inguruan hitz egitea falta da. Haurrek aurkitutako zailtasunei dagokienez, irakasleen ikuspuntutik ez dira asko nabaritzen, haurrek euren azalpen eta orientabideak arazo handirik gabe ulertzen dituztela ikusten baitute, eta gainera ikasleen interesa galduz ez doala ikusten dutelako.

Bestalde, gurasoen ikuspuntutik, euren haurrek gogo handiz hasi dute etapa berri hau, batez ere ikasturte honetan hainbeste denbora irten ezinik egon eta gero.

Azkenik, haurren jokabide-aldaketei dagokienez, irakasleek Haur Hezkuntzako ohitura batzuk mantentzen dituztela ikusten dute, eta etengabe jolasteko edo komunera joateko beharra erakusten dutela diote. Hala ere, aurtengo ikasturteko egoera desberdina izan dela onartu dute, eta hainbat zailtasunekin egin dute topo. Esaterako, ikasle bakoitzaren familiak neurri batean ala bestean egin du lan euren seme-alabekin konfinamenduan zehar, eta bueltan hori nabaritu da, ikasleen arteko jakintza-maila oso desberdinak aurkitu dituztelarik. Haur batzuek euskara maila askoz baxuagoa aurkeztu dute, eta batzuk irakurtzen ez zekitela heldu dira gelara.

Beraz, oro har, eragile guztien iritzia norabide berean doa, puntu zehatzen bat izan ezik. Hala ere, uste dugu desadostasuna dagoela gehiengoaren ustez zuzena izango litzatekeenaren eta benetan gertatzen denaren artean.

5. ONDORIOAK

Lanean zehar ikusi dugu hezkuntza-etapen arteko trantsizioa oso une garrantzitsua dela haurren bizitzan, eta ahalik eta modu mailakatuenean egin behar dela, gure ikasleengan eragin negatiboak saihesteko. Irakasleok ez dugu inoiz haurren garapena gelditu behar, kontrakoa baizik, eragile bideratzaileak izan behar gara haientzat, gure esku dagoen guztian lagunduz, eta modu honetan haurren garapen egokia erraztuz. Hori posible izan dadin, norabide berean lan egin behar dugu ikasle, guraso eta irakasleek, eta, horretarako, koordinazio ona, talde-lana eta komunikazio-fluxu ona behar dira.

Nahiz eta gure azterlanaren lagina urria izan eta emaitzak ezin diren orokortu, aukera ematen digute gaia aztertzeke eta EAEko ikastetxeetan gertatzen denari buruzko ideia txiki bat egiteko. Horregatik, gure emaitzetako batzuek islatzen dute gure oinarri teorikoan aipatutako autore batzuek diotena (igarobidea nola egin beharko litzatekeen) gaur egungo ikastetxeetan gertatzen den ala ez. Beraz, inkestetako emaitzak aztertu ondoren, gure ikerketan lortutako ondorioak zerrendatuko ditugu, eta lan hori egiteko, ikerketa proiektu honen helburuak hartuko ditugu erreferentziatzat, horiei erantzuten saiatzeko.

Lehenengo helburua Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren arteko etapa-aldaketa nola garatzen den eta ematen den koordinazioaren inguruan gehiago jakitea zen. Argos, Ezquerria eta Castrok (2011) bereziki bi etapa horien arteko koordinazioak duen garrantzia azpimarratzen dute, eta irakasle zein gurasoen ikuspuntutik hau oso garrantzitsua izan arren, euren ikastetxeetan horrelakorik ikusten ez dela diote. Gainera, EAEko dekretua aztertu eta gero, ikusi da ez dela gai honen inguruko xehetasun handirik ematen, prozesu honi garrantzia kenduz. Honek eragin kaltegarriak dakartza ikasleentzat; izan ere,

irakasleen arteko ulermen falta horrek trantsizio hau oso bortitza bilakatzen baitu hauentzat.

Bigarrenik, bi etapetako irakasleek alderdi berari buruz dituzten iritzi desberdinak alderatzea izan dugu helburu, eta honen barruan, bi etapetako edukien arteko harremanaren garrantzia azpimarratu nahi izan da. Adibidez, Tamayok (2014) honako hau esan zigun: "Proposamen didaktikoeek formatu bakarra izan behar dute, eta garrantzi berezia izan behar dute bi etapetan irakurketa eta idazketa metodo komun bat partekatzeak". Horregatik, gure inkestatuen erantzunek modu negatiboan harritu gaituzte; izan ere, Lehen Hezkuntzako maisu-maistren erdiak soilik adierazi du maiz erabiltzen dela, eta metodo bera partekatzeak duen garrantziari dagokionez, bi portzentaiak oso urriak iruditzen zaizkigu.

Gogoratu behar dugu, halaber, Galánek eta Garcíak (2008) eta Tamayok (2014) uste zutela "Lehen Hezkuntzako irakasleek Haur Hezkuntza amaitzen duten ikasleen oinarrizko ezaugarriak ezagutu behar dituztela", eta gure inkestaren arabera, nahiz eta ehuneko handi bat Haur Hezkuntzako irakasleekin biltzen den ezaugarri horiek ezagutzeko, oraindik ere %33,5ak ez du halakorik egiten, ikasleen beharrak asetzea zailtzen duelarik.

Horrez gain, Argosek (1998), esaten zuen bezala, Haur Hezkuntzako azken mailaren eta Lehen Hezkuntzako 1. mailaren arteko jarduera bateratuak egin behar dira, irakasleek espazioak eta irakasleak ezagutu ditzaten. Puntu horri dagokionez, inkestan parte hartu duten irakasleen arabera, maiztasun handiago edo txikiagoarekin egiteko joera handi samarra dago; izan ere, inkestatuen % 25ak soilik ikusten du ez duela horretarako ohiturarik.

Bestalde, Galánek eta Garcíak (2008) eta Tamayok (2014) gomendioak egiten dizkiete bai 5 urteko haurren irakasleei, bai Lehen Hezkuntzako 1. mailakoei. Haur Hezkuntzakoei zenbait portaera edo denbora mugatzea gomendatzen diete, datorren ikasturtean gauzatu ezin izango direla dakizkigunak, eta Lehen Hezkuntzakoei Haur Hezkuntzako ohiko jardurekin jarraitzea, hala nola asanbladekin, erlaxazioarekin edo txokoekin. Baina HHko irakasle gehienek esan digutenez, ia erdiak uste du ez direla ezertara ohitu behar, oraindik Haur

Hezkuntzan baitaude. Desadostasun honek, berriz ere, ikasleen igarobidea konplikatzen du, eta haurrek ahalegin handiagoak egin behar dituzte etapa berrira moldatzeko.

Ondoren, familiek prozesu horri buruz duten iritzia deskribatzea bilatu da, eta gurasoek helarazten diguten ikuspegi orokorra da pozik daudela seme-alaben ikastetxeetan aldaketa nola gertatu den ikusita, baina, era berean, hobekuntza asko egon daitezkeela uste dute. Erantzunen artean deigarria izan da, gure ustez, gurasoek ez dakitela zer jarduera egin dituzten haurrek 5 urteko gelan. Gure ustez, garrantzitsua da gurasoak informatuta egotea, eta hori horrela gertatzen ez bada, pentsarazten digu ikastetxeak ez duela komunikaziorik edo familiek ez dutela interesik. Horrez gain, aurtengo Covid-19 egoera dela eta, guraso askok laguntza gehiago bota izan dute faltan irakasleen partetik, euren egoera zein zen ulertzen zuten arren.

Amaitzeko, etapa batetik bestera igarotzeak haurrengan nola eragin dezakeen identifikatzea bilatu da, eta gure inkesten emaitzek erakutsi digutenez, ez da oso handia etapa batetik bestera aldatzeak jokabide negatiboak eragiten dien haurren kopurua. Hala ere, ikasturte honetan eman den egoera dela eta, ikasleek gradu batean edo bestean lan egin ahal izan dute euren etxeetan, eta ondorioz, eskolara bueltan haur batzuek zailtasun handiagoak izan dituzte gelako erritmoa jarraitzeko. Horregatik, denok borrokatu eta norabide berean ibili behar genuke, ehuneko hori zerora jaitsi dadin eta haur ahulenek egoera hori jasan ez dezaten.

6. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Egileek diotenaren eta errealitateak islatzen duenaren arteko desadostasunaren ondorioz, oraindik irakasle asko kontzientziatu behar direla ikusi dugu, eta egoera horrek ikaslearengan izan ditzakeen ondorio negatiboak azaldu. Horretarako, uste dugu araudiak oso eginkizun garrantzitsua duela hemen. Gure ustez, Euskal Autonomia Erkidego osorako jarraibide komunak dituen protokolo bat diseinatu beharko litzateke, koordinazio-prozesua arautzeko eta horretarako mekanismo espezifikoak ezarriz. Legediaren esparruan ikusi dugunez, igarotze koordinazio-prozesuei egiten zaien

erreferentziak oso urriak dira, eta uste dugu jarraibide sendoagoak egon beharko liratekeela ikastetxe guztientzat. Adibidez, bi etapetako maisu-maistren artean gutxieneko bilera-kopuru bat ezartzea izan liteke, bai eta gai horri buruzko puntu komun batzuk ezartzea ere, denek lankideekin landu beharko lituzketenak. Horrez gain, irakasleak egoera horretaz kontzientziatzeko eta ohartarazteko beste modu bat, irakasleen hasierako prestakuntzan horri buruzko informazioa sartzea izan daitekeela uste dugu.

Gure ustez, trantsizioaren gaia etengabe aztertzen jarraitu beharko litzateke, oraindik bide luzea baitago egiteko. Etorkizunean gai honekin lotutako ikerketak egingo bagenitu, interesgarria irudituko litzaiguke ikastetxe trantsizioa egiteko jarraibide orokor batzuk dituen programa bat diseinatzea.

7. ERREFERENTZIAK

- Argos, J., Ezquerro, M. P. eta Castro, A. (2011). *Metaforas de la transición: la relación entre la escuela infantil y la escuela primaria y la perspectiva de futuros docentes de Educación Infantil*. Revista Educación 21, 14(1), 135-156. <http://revistas.uned.es/index.php/educacionXX1/article/view/265>
- Eusko Jaurlaritzak. (2015). *Heziberri 2020*. Marco del modelo educativo pedagógico. Vitoria-Gasteiz.
- Fabian, H. eta Dunlop, A. (2006). *Outcomes of Good Practice in Transition Processes for Children Entering Primary School*. Paper Commissioned for the EFA Global Monitoring Report 2007, Strong Foundations: Early Childhood Care and Education. Paris: UNESCO. <https://files.eric.ed.gov/fulltext/ED522698.pdf>
- Gairín, J. (2005). *El reto de la transición entre etapas educativas*. Revista aula de Innovación Educativa, (142), 12-17. <https://core.ac.uk/download/pdf/132120653.pdf>
- Galán Lobato, M. J. eta García Espinosa, A. (2008). *El tránsito de Educación infantil a primer ciclo de primaria. P@k en redes*, Revista Digital, 3(1), 1-8. http://www.elpiratapiraton.com/ceptorrelavega/jjee2014/transicion/file_aj14_05_09_6_19_44.pdf
- Lizaso Elgarresta, I. (2013). *Garapenaren Psikologia*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Martin Bravo, C. eta Navarro Guzmán, J. (2010). *Psicología del desarrollo para docentes*. Madrid: Ediciones Pirámide.
- Rodríguez, A. eta Turón, C. (2007). *Articulación preescolar-primaria: recomendaciones al maestro*. Revista Iberoamericana de Educación, 44(4), 1-6.
- Sañudo Ortiz, R. M. (2015). *La transición entre Educación Infantil y Educación Primaria: Perspectivas y participación de las familias*. (Lan akademikoa).

Universidad de Cantabria.

<https://repositorio.unican.es/xmlui/handle/10902/7837>

Shaffer, D. eta Kipp, K. (2000). *Psicología del desarrollo. Infancia y adolescencia*. México: Thomson.

Tamayo, S. (2014). *La transición entre etapas educativas: de Educación Infantil a Educación Primaria*. Participación educativa, Revista del consejo escolar del Estado, 3(5), 130-137. <https://cutt.ly/efd74Sy>

I.Eranskina

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako Trantsizioa (HHko irakasleei zuzendua)

Kaixo, nire izena Nerea da eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikaslea naiz. Nire Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko aukeratu dudun gaia Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa da eta gai hori aztertzeko ondoren aurkituko duzun galdegegia sortu dut. Erantzunak anonimoak izango dira eta bakarrik nire ikerkuntzan erabiliko dira.

Ez daude erantzun onik ala txarrik, inportanteena da jakitea zure eskolan normalean, hau da, Covid-19a heldu baino lehen, trantsizio hau nolakoa den.

Edozein zalantzarik izatekotan, nirekin harremanetan jar zaitezke ngomezdesegura001@ikasle.ehu.eus korreoa.

Aldez aurretik, mila esker zure laguntzagatik!

Datu orokorrak

Descripción (opcional)

1. Nolakoa da lanean zauden zentrua? *

- Publikoa
- Pribatua
- Itunpekoa

2. Zein Hezkuntza etapatan egiten duzu lan? *

- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza

3. Zein da zure adina? *

- 22 eta 30 artean
- 31 eta 40 artean
- 41 eta 50 artean
- 51 edo gehiago

4. Irakasle bezala izandako esperientzia urteak *

- Urtebete baino gutxiago
- 1-5 urte artean
- 6-15 urte artean
- 15 urte baino gehiago

5. Lanean zauden eskolan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapak eraikuntza berean kokatzen dira? *

- Bai
- Ez

Etapen arteko koordinazioa

Galdera hauek erantzuterakoan kontuan izan aurreko urteetako egoera, aurtengoan koordinazio hori moztuta aurkitu baita Covid-19a dela eta.

6. Zure ustez, garrantzitsua al da Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen arteko koordinazioa egitea? *

	1	2	3	4	5	
Gutziz desados	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Erabat ados

7. Zenbat aldiz biltzen zara Lehen Hezkuntzako irakasleekin ikasturtean zehar? *

- 1 edo 2 aldiz
- 3 edo 5 aldiz
- 6 edo gehiagotan

8. Zure ustez, bi etapen arteko koordinazioa nolakoa da? *

	1	2	3	4	5	
Txarra	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Oso ona

9. Bileren hauetan, zenbatetan aipatzen da Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

10. Orokorrean, nola kalifikatuko zenuke zure ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen arteko harremana? *

	1	2	3	4	5	
	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	

11. Gaur egun zure ikastetxean Haur Hezkuntzako 5 urteko gelan eta Lehen Hezkuntzako 1. mailan dauden irakasleak bertako plantillan zeuden aurreko ikasturtean? *

	1	2	3	4	5	
Inor ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Denak

12. Biltzen al zara Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakasleekin, ikasleek eskuratutako gaitasunen eta garapen-mailaren berri emateko? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

13. Ba al dago koherentziarik eta loturarik Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako eta Lehen Hezkuntzako 1. mailako edukien artean? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

14. Zure ikastetxean, irakurketa eta idazketa metodo bera erabiltzen duzue Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

15. Zure esperientziatik, Lehen Hezkuntzak baldintzatzen al ditu Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako edukiak? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

16. Uste duzu Haur Hezkuntzako 5 urteko gela Lehen hezkuntzara pasatzeko prestaketara zuzendutako kurtsoa izan behar dela? *

	1	2	3	4	5	
Gutziz desados	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Erabat ados

17. Lehen Hezkuntzan hasierako ebaluazio-probak diseinatzeko laguntza eskatu al dizute? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

18. Ikastetxean ba al dago protokolorik edo programarik Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa errazteko? *

- Bai
- Ez
- Prozesuan dago
- Ez dakit

Familiak

Berriz ere, aurreko urteetako egoera kontuan izanda erantzun galderak, aurtengoa desberdina izan baita.

19. Zure ustez, etapa aldaketa horri buruz gurasoei ematen zaien informazioa egokia eta nahikoa da? *

	1	2	3	4	5	
Gutziz desados	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Gutziz ados

20. Etapa aldaketari aurre egiteko jarraibide edo orientabide zehatzak eskaintzen dizkiezu gurasoei? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

Ematekotan, zeintzuk izaten dira jarraibide edo orientabide horiek?

Texto de respuesta larga

Trantsiziorako prestakuntza

Erantzunak Covid-19ak eragindako egoera hau heldu baino lehen bizi izandako esperientzien arabera erantzun.

21. Haur Hezkuntzako 5 urteko gelan egiten al da Lehen Hezkuntzara aldatzeko prestakuntza-jarduerarik? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

22. Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako haurrei erakusten al zaie zein instalaziotan egongo diren hurrengo ikasturtean? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

23. Jarduera bateratuak egiten al dituzte Lehen Hezkuntzako haurrekin? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

24. Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako ikasleen gurasoei bilerarik egiten al da Lehen Hezkuntzarako trantsizioari buruzko informazioa emateko? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

25. Ikasturtean zehar, Haur Hezkuntzako berezko ohiturak kentzen saiatzen zara, datorren ikasturtean ziurrenik egingo ez direnak? Adibidez: gela barruan bazkaltzea, batzarrak lurtean eserita egitea, komunera libreago joatea, etab. *

- Bai, ohitzen joan behar dira
- Bai, baina kurtso amaieran
- Batzuk bai, beste batzuk ez
- Ez, oraindik Haur Hezkuntzan daude

II.Eranskina

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako Trantsizioa (LHko irakasleei zuzendua)

Kaixo, nire izena Nerea da eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikaslea naiz. Nire Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko aukeratu dudana gaia Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa da eta gai hori aztertzeko ondoren aurkituko duzun galdetegia sortu dut. Erantzunak anonimoak izango dira eta bakarrik nire ikerkuntzan erabiliko dira.

Ez daude erantzun onik ala txarrik, inportanteena da jakitea zure eskolan normalean, hau da, Covid-19a heldu baino lehen, trantsizio hau nolakoa den.

Edozein zalantzarik izatekotan, nirekin harremanetan jar zaitezke ngomezdesegura001@ikasle.ehu.eus korreoa.

Aldez aurretik, mila esker zure laguntzagatik!

Datu orokorrak

Descripción (opcional)

1. Nolakoa da lanean zauden zentrua? *

- Publikoa
 Pribatua
 Itunpekoa

2. Zein Hezkuntza etapatan egiten duzu lan? *

- Haur Hezkuntza
 Lehen Hezkuntza

3. Zein da zure adina? *

- 22 eta 30 artean
 31 eta 40 artean
 41 eta 50 artean
 51 edo gehiago

4. Irakasle bezala izandako esperientzia urteak *

- Urtebete baino gutxiago
 1-5 urte artean
 6-15 urte artean
 15 urte baino gehiago

5. Lanean zauden eskolan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapak eraikuntza berean kokatzen dira? *

- Bai
 Ez

Etapen arteko koordinazioa

Galdera hauek erantzuterakoan kontuan izan aurreko urteetako egoera, aurtengoan koordinazio hori moztuta aurkitu baita Covid-19a dela eta.

6. Zure ustez, garrantzitsua al da Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen arteko koordinazioa egitea? *

	1	2	3	4	5	
Gutziz desados	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Erabat ados

7. Zenbat aldiz biltzen zara Lehen Hezkuntzako irakasleekin ikasturtean zehar? *

- 1 edo 2 aldiz
 3 edo 5 aldiz
 6 edo gehiagotan

8. Zure ustez, bi etapen arteko koordinazioa nolakoa da? *

	1	2	3	4	5	
Txarra	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Oso ona

9. Bilerak hauetan, zenbatetan aipatzen da Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

10. Orokorrean, nola kalifikatuko zenuke zure ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen arteko harremana? *

	1	2	3	4	5	
Inor ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Denak

11. Gaur egun zure ikastetxean Haur Hezkuntzako 5 urteko gelan eta Lehen Hezkuntzako 1. mailan dauden irakasleak bertako plantillan zeuden aurreko ikasturtean? *

	1	2	3	4	5	
Inor ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Denak

12. Biltzen al zara Lehen Hezkuntzako 1. mailako irakasleekin, ikasleek eskuratutako gaitasunen eta garapen-mailaren berri emateko? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

13. Ba al dago koherentziarik eta loturarik Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako eta Lehen Hezkuntzako 1.mailako edukien artean? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

14. Zure ikastetxean, irakurketa eta idazketa metodo bera erabiltzen duzue Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

15. Zure esperientziatik, Lehen Hezkuntzak baldintzatzen al ditu Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako edukia? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

16. Uste duzu Haur Hezkuntzako 5 urteko gela Lehen hezkuntzara pasatzeko prestaketara zuzendutako kurtsoa izan behar dela? *

	1	2	3	4	5	
Gutziz desados	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Erabat ados

17. Egiten al duzu hasierako ebaluazio-frogarik Lehen Hezkuntzako 1. mailan zure ikasleek duten mailari buruz orientatzeko? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

18. Hasierako ebaluazio-frogak eginez gero, Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako irakasleekin batera diseinatzeko al dira? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

19. Haur bat Lehen Hezkuntzara irakurketa-idazketa maila baxuarekin iristen bada, Haur Hezkuntzan erabilitako metodoarekin lotutako arazoa dela uste al duzu? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

20. Ikastetxean ba al dago protokolorik edo programarik etapa Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara aldatzeko? *

- Bai
- Ez
- Prozesuan dago
- Ez dakit

Familiak

Berriz ere, aurreko urteetako egoera kontuan izanda erantzun galderak, aurtengoa desberdina izan baita.

21. Zure ustez, etapa aldaketa horri buruz gurasoei ematen zaien informazioa egokia eta nahikoa da? *

	1	2	3	4	5	
Gutziz desados	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Gutziz ados

22. Etapa aldaketari aurre egiteko jarraibide edo orientabide zehatzak eskaintzen dizkiezu gurasoei? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

Ematekotan, zeintzuk izaten dira jarraibide edo orientabide horiek?

Texto de respuesta larga

Ikasturte hasieran antzemandako ikasleen jokabideak

Erantzunak Covid-19ak eragindako egoera hau heldu baino lehen bizi izandako esperientzien arabera erantzun.

23. Ikasturtea hastean, zenbait alderditan (batzarrak, txokoak, jolasak) Haur Hezkuntzako metodologiaren ildoari jarraitzen saiatu zara? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

24. Ikasturte hasieran, ikasleek zailtasunak izaten dituzte irakasleen orientabideak eta azalpenak ulertzeko? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

25. Ikasturte hasieran, ikasleek zailtasunak izaten dituzte irakasleen orientabideak eta azalpenak ulertzeko? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

26. Eskolako lehen asteetan, eskolako lanak direla eta, interesa pixkanaka galtzen ari al dira? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

27. Ikasturtea hastean, ikasleek amarekiko negarra edo atxikimendua adierazten dute? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

28. Maiz eskatzen dute komunera edo ura edatera joatea? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

29. Zure ikasleek uneoro jolastea eskatzen dute? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

30. Maiz ahazten dituzte etxean materiala edo zereginak? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

Aurtengo egoera dela eta, ikasleak zailtasun handiagoekin hasi dute Lehen Hezkuntzako etapa? Baietz izatekotan, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Texto de respuesta larga

III. Eranskina

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako Trantsizioa (1.mailako ikasleen gurasoentzako)

Kaixo, nire izena Nerea da eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikaslea naiz. Nire Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko aukeratu dudun gaia Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa da. Izan ere, gai hori aztertzeko ondoren aurkituko duzun galdetegia sortu dut. Erantzunak anonimoak izango dira eta bakarrik nire ikerkuntzan erabiliko dira.

Ez daude erantzun onik ala txarrik, inportanteena da jakitea zure eskolan trantsizio hau nolakoa den.

Edozein zalantzarik izatekotan, nirekin harremanetan jar zaitezke ngomezdesegura001@ikasle.ehu.eus korreoa.

Aldez aurretik, mila esker zure laguntzagatik!

Datu orokorrak

Descripción (opcional)

1. Seme-alabaren generoa *

- Neska
- Mutila
- Beste bat

2. Eskola mota *

- Publikoa
- Pribatua
- Itunpekoa

3. Zenbat urterekin hasi zuen Lehen hezkuntzako 1. Maila zure seme-alabak? *

- 5
- 6
- 7

4. Neba-arrebarik ba al dauka? *

- Bai, nagusiagoa
- Bai, erdikoa da
- Bai, txikiagoa
- Ez

5. 5 urteko gela egin zuen eskola berean jarraitzen du? *

- Bai
- Ez

Eskola

Aurtengo egoera, Covid-19a dela eta, desberdina izan da eta horregatik trantsizio honen zati bat etxean egin behar izan dute.

6. Iazko ikasturteko ikaskide berberekin jarraitzen du? *

- Bai
- Ez
- Batzuekin bai, beste batzuekin ez

7. Zure seme-alabarekin aurrera eramateko jarduerak proposamenik eman ahal zaizu ikastetxetik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa prestatzeko? *

- Bai, larregi
- Bai, nahikoak
- Bai, baina oso gutxi
- Ez
- Ez dakit

8. Etxetik ohartarazi al diozu semeari Lehen Hezkuntzako etapa "konpikatuagoa" dela eta irakasleak "gogorragoak" direla? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

9. Trantsizioari buruzko informaziorik ematen da Haur Hezkuntzako umeen gurasoentzako? *

- Bai
- Ez
- Ez dakit

10. Ikastetxeko maisu-maistrek jarraibide edo orientabide zehatzak eskaini al dizkizute etapa aldatetari aurre egiteko? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

11. Beharrezkoa iruditzen al zaizu Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen arteko koordinazio ona egotea? *

- Bai, funtsezkoa da
- Bai, beharrezkoa da baina ez funtsezkoa
- Ez da beharrezkoa
- Ez dakit

12. Zure ikastetxean koordinazio hori dagoela uste duzu? *

- Bai
- Bai, baina hobe izan ahalko zen
- Ez
- Ez dakit

13. Zuen ustez, konfinamendua heldu baino lehen, ikastetxean etapaz aldatzeko egin den prestakuntza egokia izan da? *

- Bai, haurrak oso prestatuak doaz
- Bai, ondo dago
- Hobetu ahalko zen
- Ez, ez da nahikoa
- Ez dakit

14. Eta konfinamenduan zehar telematikoki egindakoa? *

- Bai, haurrak oso prestatuak doaz
- Bai, ondo dago
- Hobetu ahalko zen
- Ez, ez da nahikoa
- Ez dakit

20. Oro har, zure ustez, zure seme-alabari eragin al dio etapa aldaketa honek? *

- Bai, asko eragin dio
- Bai, baina gutxi
- Bai, baina normala dela uste dut
- Ez dio ia eragin
- Ez dio ezertan eragin

Zer bota duzu faltan eskolaren partetik konfinamenduan zehar?

Texto de respuesta larga

Haurren jarrerak

Descripción (opcional)

15. Zure semeak ilusioz hasi al zuen Lehen Hezkuntzako etapa? *

- Bai, ilusio handiz
- Erdixka
- Ez zeukan ilusiorik

16. Ikasturtea hasi zenetik, nabaritu duzu arazoren bat haurrengan, adibidez, loan edo elikaduran? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

17. Erakutsi al du negarra bezalako jokabiderik eskolara joatean? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

18. Nabaritu al duzu zure semeak etxean nolabaiteko urduritasuna duela ikastetxeari buruz hitz egitean? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

19. Erantzukizun errazak hartu al ditu, hala nola, motxila antolatzeaz edo bazkaria hartzeaz arduratzea? *

- Bai, baina aurreko kurtsoetik egiten zituen
- Bai, aurreko urtean baino arduratsuagoa da
- Aurreko urteko erantzukizun berak ditu
- Ez, antzera egiten duela dirudi

IV. Eranskina

Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako Trantsizioa (2.mailako ikasleen gurasoentzako)

Kaixo, nire izena Nerea da eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikaslea naiz. Nire Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko aukeratu dudana gaia Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa da. Izan ere, gai hori aztertzeke ondoren aurkituko duzun galdetegia sortu dut. Erantzunak anonimoak izango dira eta bakarrik nire ikerkuntzan erabiliiko dira.

Ez daude erantzun onik ala txarrik, inportanteena da jakitea zure eskolan trantsizio hau nolakoa den.

Edozein zalantzarik izatekotan, nirekin harremanetan jar zaitezke ngomezdesegura001@ikasle.ehu.eus korreoa.

Aldez aurretik, mila esker zure laguntzagatik!

Datu orokorrak

Descripción (opcional)

1. Seme-alabaren generoa *

- Neska
 Mutila
 Beste bat

2. Eskola mota *

- Publikoa
 Pribatua
 Itunpekoa

3. Zenbat urterekin hasi zuen Lehen hezkuntzako 1. Maila zure seme-alabak? *

- 5
 6
 7

4. Neba-arrebarik ba al dauka? *

- Bai, nagusiagoa
 Bai, erdikoa da
 Bai, txikiagoa
 Ez

5. 5 urteko gela egin zuen eskola berean jarraitzen du? *

- Bai
 Ez

Eskola

Kontuan hartu zure seme-alabak 5 urteko gelatik 1.mailara egindako trantsizioa galdera hauek erantzutean, hau da, lazko aldaketa.

6. lazko ikasturteko ikaskide berberekin jarraitzen du? *

- Bai
 Ez
 Batzuekin bai, beste batzuekin ez

7. Zure seme-alabaren ikastetxean Haur Hezkuntzako 5 urteko gelan jarduerarik egin al zen Lehen Hezkuntzarako trantsizioa prestatzeko? *

- Bai, larregi
 Bai, nahikoak
 Bai, baina oso gutxi
 Ez
 Ez dakit

8. Etxetik ohartarazi al diozu semeari Lehen Hezkuntzako etapa "konplikatuagoa" dela eta irakasleak "gogorragoak" direla? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

9. Trantsizioari buruzko informazio bilerarik egin al zen Haur Hezkuntzako umeen gurasoentzako? *

- Bai
 Ez
 Ez dakit
 Bai, baina ez nintzen joan

10. Ikastetxeko maisu-maistrek jarraibide edo orientabide zehatzak eskaini al dizkizute etapa aldatetari aurre egiteko? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

11. Beharrezkoa iruditzen al zaizu Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen arteko koordinazio ona egotea? *

- Bai, funtsezkoa da
 Bai, beharrezkoa da baina ez funtsezkoa
 Ez da beharrezkoa
 Ez dakit

12. Zure ikastetxean koordinazio hori dagoela uste duzu? *

- Bai
 Bai, baina hobeia izan ahalko zen
 Ez
 Ez dakit

13. Zuen ustez, ikastetxean etapaz aldatzeko egiten den prestakuntza egokia da? *

- Bai, haurak oso prestatuak doaz
 Bai, ondo dago
 Hobetu ahalko zen
 Ez, ez da nahikoa
 Ez dakit

Haurren jarrerak



Berriz ere, iazko trantsizioa izan kontuan galderak erantzutean.

14. Zure semeak ilusioz hasi al zuen Lehen Hezkuntzako etapa? *

- Bai, ilusio handiz
- Erdikka
- Ez zeukan ilusiorik

15. Ikasturtea hasi zenetik, nabaritu duzu arazoren bat haurrengan, adibidez, loan edo elikaduran? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

16. Erakutsi al du negarra bezalako jokabiderik eskolara joatean? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

17. Nabaritu al duzu zure semeak etxean nolabaiteko urduritasuna duela ikastetxeari buruz hitz egitean? *

	1	2	3	4	5	
Inoiz ez	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	Beti

...

18. Erantzukizun errazak hartu al ditu, hala nola, motxila antolatzeaz edo bazkaria hartzeaz arduratzea? *

- Bai, baina aurreko kurtsoetik egiten zituen
- Bai, aurreko urtean baino arduratsuagoa da
- Aurreko urteko erantzukizun berak ditu
- Ez, antzera egiten duela dirudi

19. Oro har, zure ustez, zure seme-alabari eragin al dio etapa aldaketa honek? *

- Bai, asko eragin dio
- Bai, baina gutxi
- Bai, baina normala dela uste dut
- Ez dio ia eragin
- Ez dio ezertan eragin

V. eranskina

Eskola agurgarria:

Nire izena Nerea da eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikaslea naiz. Nire Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko aukeratu dudan gaia Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa da eta hau aztertu ahal izateko hainbat inkesta prestatu ditut; Lehenengoa 5 urteko gelako irakasleentzako, bigarrena 1.mailako irakasleentzako, eta hirugarren eta laugarrenak 1.mailako eta 2.mailako ikasleen gurasoentzako.

Mezu hau bidaltzen dizuet zuen laguntza eskatzeko, eta ea inkesta hauek zuen ikastetxeko parte hartzaile desberdinek bete ahalko zuten eskatzeko.

Erantzunak anonimoak izango dira eta bakarrik nire ikerkuntzan erabiliko dira.

Ez daude erantzun onik ala txarrik, inportanteena da jakitea zure eskolan trantsizio hau nolakoa den.

Edozein zalantzarik izatekotan, nirekin harremanetan jar zaitezke korreo honetan.

Aldez aurretik, mila esker zuen laguntzagatik!

Hona hemen inkesten estekak:

- Haur Hezkuntzako irakasleentzako:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSeiqMLXMfqTBZlhJZmo8Tm6IFk5pWUzlUdOmmnbZl-72ekSYw/viewform>

- Lehen Hezkuntzako irakasleentzako:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfzldZ0QS6SZ35V791yP1ibytbsNxrek6U78b9e_oymwk1V9g/viewform

- 1.mailako gurasoentzako:

Euskeraz:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLScg8XaiaeFZEacatcfVZczXykSV47JX7PC0bA5-09JvC3nb0w/viewform>

Gaztelera:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfsVcM5QPmWkz5BGEVykXzVsS_sr8e2kbc_3kSne-0CSlzeXA/viewform

- 2.mailako gurasoentzako

Euskeraz:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfZKtQjcvZeD6rTuvQaswTJJ6ROu1xyd4DnUuDmFY-18wOVg/viewform>

Gaztelera:

<https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfgkP0iShHHyiVHIKvv2DsRGTpzigVyrDtSMdXqIfXHP-4cjUg/viewform>

VI. eranskina

Aldagaiak	HHko irakasleak	LHko irakasleak	LHko 1.mailako familiak	LHko 2.mailako familiak
Etapen arteko koordinazioari buruzko pertzepzioa	1. Zure ustez, garrantzitsua al da Haur eta Lehen Hezkuntzako etapan arteko koordinazioa egitea? 2. Zure ustez, bi etapan arteko koordinazioa nolakoa da?	1. Zure ustez, garrantzitsua al da Haur eta Lehen Hezkuntzako etapan arteko koordinazioa egitea? 2. Zure ustez, bi etapan arteko koordinazioa nolakoa da?	1. Beharrezkoa iruditzen al zaizu Haur eta Lehen Hezkuntzako etapan arteko koordinazio ona egotea? 2. Zure ikastetxean koordinazio hori dagoela uste duzu?	1. Beharrezkoa iruditzen al zaizu Haur eta Lehen Hezkuntzako etapan arteko koordinazio ona egotea? 2. Zure ikastetxean koordinazio hori dagoela uste duzu?
Irakasleen arteko elkarlana eta harremana	1. Zenbat aldiz biltzen zara Lehen Hezkuntzako irakasleekin ikasturtean zehar? 2. Bilerak haueetan, zenbatetan aipatzen da Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa? 3. Orokorrean, nola kalifikatuko zenuke zure ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen arteko harremana?	1. Zenbat aldiz biltzen zara Lehen Hezkuntzako irakasleekin ikasturtean zehar? 2. Bilerak haueetan, zenbatetan aipatzen da Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa? 3. Orokorrean, nola kalifikatuko zenuke zure ikastetxeko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen arteko harremana?		
HHko eta LHko edukien arteko harremana	1. Lehen Hezkuntzan hasierako ebaluazio-probak diseinatzeko laguntza eskatu al dizute? 2. Ba al dago koherentziarik eta loturarik Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako eta Lehen Hezkuntzako 1.mailako edukien artean? 3. Zure ikastetxean, irakurketa eta idazketa metodo bera erabiltzen duzue Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan? 4. Zure esperientziatik, Lehen Hezkuntzak baldintzatzen al ditu Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako edukiak?	1. Hasierako ebaluazio-frogak eginez gero, Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako irakasleekin batera diseinatzen al dira? 2. Ba al dago koherentziarik eta loturarik Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako eta Lehen Hezkuntzako 1.mailako edukien artean? 3. Zure ikastetxean, irakurketa eta idazketa metodo bera erabiltzen duzue Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan? 4. Zure esperientziatik, Lehen Hezkuntzak baldintzatzen al ditu Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako edukiak?		
Ikastetxeko trantsizioarako plana	1. Ikastetxean ba al dago protokolorik edo programarik Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa errazteko?	1. Ikastetxean ba al dago protokolorik edo programarik Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa errazteko?		
Trantsizioaren inguruan jasotako/emandako informazioa	1. Zure ustez, etapa aldaketa horri buruz gurasoei ematen zaien informazioa egokia eta nahikoa da? 2. Etapa aldaketari aurre egiteko jarraibide edo orientabide zehatzak eskaintzen dizkiezu gurasoei? 3. Ematekotan, zeintzuk izaten dira jarraibide edo orientabide horiek? 4. Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako ikasleen gurasoei bilerarik egiten al da Lehen Hezkuntzarako trantsizioari buruzko informazioa emateko?	1. Zure ustez, etapa aldaketa horri buruz gurasoei ematen zaien informazioa egokia eta nahikoa da? 2. Etapa aldaketari aurre egiteko jarraibide edo orientabide zehatzak eskaintzen dizkiezu gurasoei? 3. Ematekotan, zeintzuk izaten dira jarraibide edo orientabide horiek?	1. Zure seme-alabarekin aurrera eramateko jarduera proposamenik eman ahal zaizu ikastetxetik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa prestatzeko? 2. Trantsizioari buruzko informaziorik ematen da Haur Hezkuntzako umeen gurasoentzako? 3. Ikastetxeko maisu-maistrek jarraibide edo orientabide zehatzak eskaini al dizkizute etapa aldaketari aurre egiteko? 4. Zer bota duzu faltan eskolaren partetik konfinamenduan zehar?	1. Zure seme-alabarekin aurrera eramateko jarduera proposamenik eman ahal zaizu ikastetxetik Lehen Hezkuntzarako trantsizioa prestatzeko? 2. Trantsizioari buruzko informaziorik ematen da Haur Hezkuntzako umeen gurasoentzako? 3. Ikastetxeko maisu-maistrek jarraibide edo orientabide zehatzak eskaini al dizkizute etapa aldaketari aurre egiteko?
Etapaz aldatzeko hurrekin egindako prestakuntza	1. Uste duzu Haur Hezkuntzako 5 urteko gela Lehen hezkuntzara pasatzeko prestaketara zuzendutako kurtsua izan behar dela? 2. Haur Hezkuntzako 5 urteko gela egiten al da Lehen Hezkuntzara aldatzeko prestakuntza-jarduerarik? 3. Haur Hezkuntzako 5 urteko gelako hurrei erakusten al zale zein instalaziotan egongo diren hurrengo ikasturtean? 4. Jarduera bateratuak egiten al dituzte Lehen Hezkuntzako hurrekin? 5. Ikasturtean zehar, Haur Hezkuntzako berezko ohiturak kentzen saiatzen zara, datorren ikasturtean ziurrenik egingo ez direnak? Adibidez: gela barruan bazkaltzea, batzarrak lurrean eserita egitea, komunera libreago joatea, etab.	1. Uste duzu Haur Hezkuntzako 5 urteko gela Lehen hezkuntzara pasatzeko prestaketara zuzendutako kurtsua izan behar dela? 2. Egiten al duzu hasierako ebaluazio-frogarik Lehen Hezkuntzako 1. mailan zure ikasleek duten mailari buruz orientatzeko? 3. Haur bat Lehen Hezkuntzara irakurketa-idazketa maila baxuarekin iristen bada, Haur Hezkuntzan erabilitako metodoarekin lotutako arazoa dela uste al duzu? 4. Ikasturtea hastean, zenbait alderditan (batzarrak, txokoak, jolasak) Haur Hezkuntzako metodologiaren ildoari jarraitzen saiatu zara?	1. Zuen ustez, konfinamendua heldu baino lehen, ikastetxean etapaz aldatzeko egin den prestakuntza egokia izan da? 2. Eta konfinamenduan zehar telematikoki egindakoa?	1. Zuen ustez, ikastetxean etapaz aldatzeko egiten den prestakuntza egokia da?

Ikasleek trantsizioa egindakoan aurkitutako zailtasunak		1. Ikasturte hasieran, ikasleek zailtasunak izaten dituzte irakasleen orientabideak eta azalpenak ulertzeko? 3. Eskolako lehen asteetan, eskolako lanak direla eta, interesa pixkanaka galtzen ari al dira? 4. Aurtengo egoera dela eta, ikasleak zailtasun handiagoekin hasi dute Lehen Hezkuntzako etapa? Baietz izatekotan, zeintzuk azpimarratuko zenituzke?	1. Zure semeak ilusioz hasi al zuen Lehen Hezkuntzako etapa? 2. Oro har, zure ustez, zure seme-alabari eragin al dio etapa aldaketa honek?	1. Zure semeak ilusioz hasi al zuen Lehen Hezkuntzako etapa? 2. Oro har, zure ustez, zure seme-alabari eragin al dio etapa aldaketa honek?
Ikasturte hasieran antzemandako ikasleen jokabideak		1. Ikasturtea hastean, ikasleek amarekiko negarra edo atxikimendua adierazten dute? 2. Maiz eskatzen dute komunera edo ura edatera joatea? 3. Zure ikasleek uneoro jolastea eskatzen dute? 4. Maiz ahazten dituzte etxean materiala edo zereginak?	1. Ikasturtea hasi zenetik, nabaritu duzu arazoren bat haurrengan, adibidez, loan edo elikaduran? 2. Erakutsi al du negarra bezalako jokabiderik eskolara joatean? 3. Nabaritu al duzu zure semeak etxean nolabaiteko urduritasuna duela ikastetxeari buruz hitz egitean? 4. Erantzukizun errazak hartu al ditu, hala nola, motxila antolatzeaz edo bazkaria hartzeaz arduratzea?	1. Ikasturtea hasi zenetik, nabaritu duzu arazoren bat haurrengan, adibidez, loan edo elikaduran? 2. Erakutsi al du negarra bezalako jokabiderik eskolara joatean? 3. Nabaritu al duzu zure semeak etxean nolabaiteko urduritasuna duela ikastetxeari buruz hitz egitean? 4. Erantzukizun errazak hartu al ditu, hala nola, motxila antolatzeaz edo bazkaria hartzeaz arduratzea?